


bidaztien
aterpea



BIDAZTIEN ATERPEA

BIDAZTIEN ATERPEA

egilea:

MANUEL MARIN TRIANA, S. J.

euskeratzalea:

Etxebarria'tar Juan Anjel

ITXAROPENA ARGITALDARIA

ATARIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 607—1967

Best diran baimenakin

Copyright 1968 - El Autor

«Itxaropena argitaldaria» Irar-lantegietan argitara emana
F. Unzurrunzaga - Victor Pradera 2 - Zarautz

*Idazti onek galburu eldu-barria lakoa izan gura
leuke ta gogarte bakoitzak gari-ale samurra lakoa.*

*Aintzira bare baten antzera baregarri izango al
da, ta gogai bakoitzak udazken-aizeak bezela leun
ikutuko al zaitu!*

*Ongi ornidutako baratz baten antzekoa ba'litz,
orixe bere itxaron betea, bertako sentipen bakoitza
zabaltzen dan lore-kukulu baten antzekoa ba'litz.*

*Idaztitxo au zuretzat, ene lagun maite orrentzat,
guzti ori ba'litz-maitasun, bake ta janari-zorion-
ezaugarritz galgatuta legoke bere jaiotza.*

*Bera, ordea, zure bizitzan emon gura dautsoke-
zun lekuaz pozik dagoke. Benetan da bakuna. Au-
xe dau elburutzat: ordu baketsu ta illunetan zure
laguna izan; Jaungoikoa billatu ta uste onaren ta
bildurbako maitasunaren bidean aurkitu bear do-
zunean zuri lagundu.*

Biotz zintzo bakar batek, aul eta itsakor arren orri oneitan bide ori ikasiko ba'leu, ondo beteak litzakez bixitzara urtekeran izan dauzan gurariak.

Gogarte-gai bakoitza bertako lerroetan osorik dago. Ez dau zer ikusirik besteakaz. Izen orokor batzuen azpian dagerz, baiña; loreak lorontzietan legez: gitxi-asko alkartu leikezan gogai bateri dagokiozala, zati guxtien alkarrekiko batasuna dala-ta.

Artu egizu era onetara, anai, ordu baretsuen emaitz au. Batzutan, gogo-bixitzan zear ibiltea illun ta gogor egingo yatzu: ezinbestezko egikizuna edo illunpe andiago batetik iges egitea bai'litzan.

Jaungoikoaz beste era batera pentsetan bultzatu ta larritasun bako maitex Bera maitatuerazo nai neuskizu. Beti be «Bera maite dabenen aldekoak biurtzen baitira gauzak».

ARRENA

I

Berak eragindako eresia entzungo al dozu, bide luzean!

Ara nire opa bizia:

Izaki guztien izketan Bere oinkaden urratza ta Bere ibilleran usaiña igarri dagizuzan.

Zeru-ortzean josiriko ederra ta giza-biotzean bizia senti dagizuzala.

✧ Ta batez be, bidez zoazala, goizetik gabera biltzen zaitun Jaungoiko-maitasunean zure uste ta itxaropen guztia ipintea nai neuke.

II

Urre-zidarrezko goizean zelaira urtekeran, Izadian zakust, Jauna. Ta zure esku indartsuaren ederra niganafio eltzen da.

Ixillean Zuri begira, otoitzez nagoala, Zure anditasuna nirea dala ta azpiratu nagiken ezer ez dagoala nabaitzen dot.

Eskuak baturik zure aurrean, munduan agintzen daben guztiak baiño altsuago deritzat nire buruari.

Zure oiñetan auzpez nagoala, zure errukian uste osoa jarrita, sendoago jagiten naz gizon guztiak nire alde diranean baiño.

III

Zure berba egiteko modua azaltzen daustenena baiño argiago yat Zugandiko itza.

Zure mintzo alaia ondo ulertzen dot. Zure igarobidearen gozoa azaltzen daustenena arrazoiak baiño obeto.

Zure maitea gardenago da ene biotzarentzat, zure maitasunaren andia adierazoten daustenena esanak baiño.

Berak itz egin begist. Ixildu beitez bere itzen soñua azaldu guraz dabilkidazanak.

IV

Jaungoikoa ain urrun dago, —esaten neban nire barrurako.

Bide guztietan zear Aren billa asi nintzan; baiña topau ezin.

Atzerri aldera jo neban, lurbira osoa ibilli, urru-
nean beintzat aurkitzeko asmotan; baiña alperrik.

Nire txabolatxoaren ondotik igaro zan bidazti
bateri itaundu neutson. Ez eustan ezer andirik ar-
gitu.

Usteak galduta, loak artu ninduan. Goizean goi-
zik eguzkiak lurra argitzean izaki guztiak niri esa-
ka: —Ementxe daukazu.

Orduan ulertu neban Bera antxe egoala, galdu-
tako tontorrean ta nire alboan, urrun ta bertan.

V

Ba-dantzut zure intziria: ez dakizula zelan ber-
ba egin Jaungoikoagaz; ez dakizula zer esan.
Niri be beste orrenbeste jazoten yatan arik eta
munduko izakiak etorri ta nire ordeztan izketan asi
ziran artean.

Artizarra, larrosa, itxas-olatuak, illargi ixillak
ba-dakie nire ixilgordeak aldarrikatuten.

Aizeak, mendiak, iñurriak eta margaritak nik ez
dakidan eresia abestuten dabe.

Ta zelako ederto!

Euren itzak nireak baiña esanguratsua dira.

Jaungoikoari zure maitasuna zelan azaldu ez da-
kizunean esaizu:

—Errekatsu garden, nik ixildua zuk abestu:

VI

Ni ume nintzala, amak, baserri baketsu ezkutuan il-orduan, berak esaten eban otoitza idatzirik emon eustan.

Gaztetan idatzi eban berak, nire aita maitatzen asi zanean ta beti be esaten eban. Papel-orri ori baten idatzita egoan. Emon eustanean egunero esateko eskatu eustan.

Nik ez nekian irakurten ta beste iñork irakurtea be ez neban atsegin.

Gabean, lotara baiño len, belauniko jarten nintzan. Otoi-papela eskuetan artu, Jaungoikoagana begiak jaso ta esaten neban: —Jauna, papel onetan dagoana diñotzut.

VII

Bidaztiak esan eban:

Bizitzaren ibai andia eskeintzera natorkizu, Jauna. Eten gabe joan doa, begiak atzera biurtu bariarik amiltzen dala. Bertako ur-tanta galdua nozu.

Ludiko soiñu ereskitsua oparitzat dakartzut. Lurrak uneoro dixurin soiñuan ereski oarkaitz bat naz.

Izarren oratu-eziñezko argia dopaltzut, Izadian diz-diz egin ta ernemintzen dana.

Bertan dizdira ezezagun bat nozu.

Gizaldi guztien ospea, mugagabeko Aldiaren dizdira ta indarra eskeintzen dautzudaz. Bertan lipar igeskor bat naz.

Azkenez, ondo-gabeko giza-atsekabea nai dautzut opaldu, gorputz-arimetatik geldiuenerik bage dariona. Bertan nire oiñazea aztutako intziri bat dozu.

VIII

Zure bizitzaren joan-etorrietan ainbat gauza eder esan dautsozuz Jaungoikoari.

Eresi sakon gozoak abestu dautsozuz zure biotz-maitasuna azaltzeko.

Sarri askotan berba orreik egazka joan ziran, aizeak darabiltzan odeiak legez.

Zure gaurko leloa abestuteko daukazu, orain ta betikoa daitekena.

Artu zure jo-gaillua ta emon kantuz, Berarentzat, zure eresi argitsuena. Igaroko ez dan maitasunarena.

IX

Eleiza bakartian zu ta biok belauniko, itzalean, Jaunaren aurrean. Bakoitzak eskuak bulargaiñean batuta genduzan Berari arrenka.

Berak bioi batera itz egiten euskun, bere abotsa niretzako bakarrik zala iruditu yatan arren. Zuk Aren berbak zuretzako bakarrik zirala uste zenduan.

Nik aditu neutson argiz beteriko mintzo berezia ulergaitz yatzun. Zugana eldu ziran oiartzun garden-ixillak, azkatu eziñezko ezkutuki izango dira beti niretzat.

Bera ixildu zanean, bi-biok bere itz bakan ezbar-din arei adi jarraitu genduan.

X

Otoitz-aldian Jaungoikoagana urreratzen zareanean ez dozu itzen bearrik. Sarritan esangura andieneko berbak barruan gelditzen dira.

Naikoa dozu, orduan, bere aurrean maitez auzpeztutea, biotzari jarduten itxitea, zuk berba-otsik atara ez arren.

Esanaren oiartzuna itzali egiten da. Gaurko itzak biar ez dira bardin. Euren esangura unerik unera aldatuz doa-ta.

Maitasun sakon zintzoa dau Jaungoikoak atsegiñen ta biotz-taupadak, ezpaneratu ez arren.

Erreza dozu Jaungoikoagazko jardunbidea. Baiña azalera elduten ez diran esanakaz eta zure biotz-taupadakaz maite bear dozu.

XI

Berak ez eustan ezer esaten. Ondo nabaitzen neban. Ni itaun ta itaun ari nintzan; Berak, ordea, ez entzunarena egiten eban. Nik ekin ta ekin berbetan Bere erantzun otsa oartu eziñik.

Egun baten, nire atsekabea andia zalarik, entzun neutson esaten: —Zure berbotsaren erdian zelan itz egin nik? Ikasi egizu ixillik egoten. Egon adi ta Nik itz egingo.

Olantxe, ixillaren aginterrian, Jaungoikoak zure baratza edertuko dau, zarata bage.

Aintzira garden-baretsuan zabalduten da loto-lore zuria.

XII

Berak, eskuak batuta, onelan otoitz egian:

Jauna, euri-tanta baten antzekoa naz. Nire eze-
rezaz gogoratuko ete zara? Zelan eukiko zaitut
nigaz?

Ta ixillik geratu zan, erantzunaren zain.

Baratzeko urmaelean josi ebazan begiak. Eguz-
kiaren argi ereskitsua ikusi eban ur geldia bete-
tzen ta bertan kokatzen.

Orduan gogoratu yakon Jaungoikoak ez ebala
azturik. Eta beragan bizi leitekela bere barrua be-
tetzen, eguzkiak urmaeleko ur gardena legez.

XIII

Jauna, nai dodana Zuri eskatzeko diñostazu. Bai-
ña, Zuk gogo dozuna eskatzea atsegiñago yatzu;
ba-dakit.

Askotan otzara utsik dodala nago zure aurrean
ta zoriontsu naz ezer ez eskatzeaz.

Egun atan zure ondoan nengoan ezertxo ere
esan barik. Astia igaro ta nire biotz-ondoan senti
zindudazan. Zure begitarreak pozez betetzen nin-
duan; alan be, ezin erakarri berbarik ezpanetara.

Gogai batek esan eustan bigun-bigun belarrira:
—Zergaitik ez esan Berari ezer?

Ni ixillik, oldozketan: —Obe da biotzak ixi-
llean berba egitea. Zelan azaldu berbaz esan-ezi-
ña?

XIV

Jaungoikoaren almena gauza txikietan, loretxoetan, mitxeletetan asmatzen jakitea naiago dot itxasoko ekatx ikaragarrian baiño.

Gauza guztien ereskidetasun sakonean, ortzean zear jira-biraka dabiltzan alkarri josiriko izarren bakean Bera ikusi gura neuke.

Basoko ixiltasun leiatsuan ta zelai geldien ernetze betean nai dot aurkitu.

Bere igarobidearen sinfoni ixilla samurturik entzutuen dagoala, arimaren bakean Jaungoikoaren andia senti nai dot.

XV

Bera ezagutzeko gogo bizia daukat. Baiña, ez dakit nun bizi dan, ezta nundik datorren bere.

Itxaroten ez dautsodanean nire bizian aurkitzen dot, etxekoa bai'litzan; atzera natorreneko ez dago Bera.

Batzutan nik deitu barik etorten da; beste batzutan, Aren begira egoten naz luzaroan, alperrik.

Baiña, ezin aztu Beragaz ezelan bere.

Bere izenik ez dakit, beste iñogaz bat egiten ez ñodan arren.

Datorrenean, nire osertzean lenengoz agertzen dala emoten dau. Zoriontsu naz olakoetan ta ez dot beste ezeren bearrrik.

Berba gitxiduna da Bera; neu bere ez naz azalpen-billa asten.

Orduan ulertu egiten dot, zelan jakin ez arren; ta dana argitu egiten yat Berak esatean:

—Ni nozu.

XVI

Ez dakizula gogoan alperrik ixuri, bideari ekiteko bear izango dozu-ta, zure buruari uko egiteko ta zutunduteko.

Lorai begira, abestuz, ziñoiazala, bideko arrien gaiñera ixurtzen joian zure pitxarreko ura.

Gero, eguzkiak zure txabola-gaiña erretzean, ur presko barik aurkitu ziñan eguerdiko txingarrean.

XVII

Ainitz gauza eskatu neutzuzan, Jauna, ta Zuk eskatu baiño geiago emon zeustan.

Batzutan, lortu gura nebanaren irrikaz arrenka nengokizun; beste batzutan kezkatzen ninduana-ren bildurrez. Beti jagon ninduzun ta ez jausteko bear nebana emon zeustan.

Gero, zure emaitzaz aztu oi nintzan ta ezer zor ez ba'neutzun lez bizitzen asten nintzan, arik eta harrero zure premiña nabaitu arte.

Orain, une argitsu ta oartutako onetan, andiak iruditzen ba'yataz be, emaitz txikiak emon edo zaindu nagizun Zuri geiago ez eskatzeko erabagia artu nai dot.

Gaur eskari bakarra nai dautzut egin:

—Zeu etorri. Zugandiko emaitza Zu Zeu zakidaz, ene Jainko!

XVIII

Narrazka zaroazan zurrunbillo-erdian, peitzen yatzun gaizkakunde-indarra etorriko yatzu.

Zatzazan zoritxar-sakonean bizitza ta kemena atzera biurtuko dautzuzan argia ikusiko dozu, askotan.

Gogoratu egizu itxas-ondoraño murgiltzen dan arri-bitxien arrantzalea.

Antxe jarrita dauka itxaropena ta, arri-bitxidun ispela aurkituta argitara urtekeran, biotza poztu egiten yako.

Beti biotza Jaungoikoaganaño jaso ta bere errukia jadetsi zeinke apaltasun samurrez. Ara esan bear dautsozuna:

—Nire ezereza baiño ez daukat Zuri dotetzat eskeintzeko.

XIX

Ene Jaungoiko, Zuk nigan ipinten dozuna baiño ez daukat, ta Zuk lenago emonikoa besterik ezin eskeiñi neuskizu.

Zure aurrean olantxe egon gura dot: biotz-kukulu zabalik, nik Zuri emotea gura dozuna bertan ixuri dagizun.

Gero, Jauna, begiratu zure emarietan nire eskeintzak eta entzun nire biotz-izketan zure ixilkien susmurrua.

Ez dakit, Jauna, zelan izan daiteken ain emonkor zure eroapena. Danak alde egin dabenean, ni bakar itxiaz, Zeu etorri zatoz.

Beste guztiak ezer bage itxi nabenean, dana emoten zatoz.

Ainbat bidar oarkabe igaro arren, zure emarieriaz konturatu barik, Zeu ba-zatoz bein ta barrero pitxarra bete esne otz dakartzula.

Zure eguna beti azkena ta beti lena, ta nire oroitzapenean betiko dirauna.

Zure maitezko damuak inpernu guztiak baiño indar andiagoa dau. Beraren usaiñak intsentsu odeiak baiño atsegingarriago igoten dau Jaungoikoagana.

Damuzko negar-malkoak arako Ebangelioko nardo-usaiñak baiño atsegin andiagoz igurtzitzen dabez Jaunaren oiñak.

Damuzko biotz-erdiratze nare-sakona zeru goietaraño sartzen da, Jaungoikoaren biotzeraño, bere erfukiaren tegia zabalduaz.

Ez dago ezer samurragorik, ez guztialtsuagorik, ez ziurragorik garbaidun gogoaren min pozkariora baiño.

XXII

Ikusi-eziñezkoan datza zure indarra. Agertzen ez dana, argiago, bertanago, sendoago ta ziurrago da, dakusguzan gauzak baiño.

Zentzunak ez bai dagikee zaldiketa au ikusi, ikusten ez danaren izate ta irauteak almen ori emon ezik. Agerikoa etengarriago, illunago ta ikutu-eziñago da ezkutuzkoa baiño.

Argitasun-keta asten ba'zara, ez dozu idoroko ura bere iturburu ezkututik bananduaz, ezta argiz beteriko gauzak argitzen dituan eguzkia gogoan euki barik begiratuaz ere.

Ikusi eziñaren argiak emongo dautsez izana ta jo-muga doazan itzalai.

XXIII

Zuganako bide-billaketan ari nintzan; baiña aurkitzeko gatxa ta neketsua iruditu yatan.

Egun baten auxe ulertu neban: bizitzaren bide-txigor guztietan agertzen yakuna begiratzen ta sentitzen jakitea dogu bearrezkoena, Zu zagozan lekuraño eltzeko.

Izaki guztietan, ikuspegi guztietan, ustekabe orotan Zu asmatzen ikasten asi nintzan.

Olantxe ikasi nebanetik, edonundik noala aurkitzen zaitut eta munduko bide guztietan bidera urtetan zayataz.

XXIV

Nire guraria bete dagizun nire deadarrak zein garaigabekoak diran, Jauna!

Ta nire asmoai buruzko nire naikerien zoroa! Irakaslearen orrialdean umeak egindako zirri-borroak lakoak dira.

Zure bidetik ibiltea zein ona dan ulertu al ba'neu!

Ixillean ta norbere buruaz aztutzean Zuri adi egoten ikasi al ba'neu!

XXV

Zure gogaien sinfoni ezkutuzkoa nire itzetan mamiturik ete dakutsu, bide-lagun orrek?

Zure barru-olatuen oiartzuna ete dantzuzu nire sentipen-azalpena aditzean?

Ez dago gauzarik beste baten bardin daitekenik. Egia. Alan ta guzti bere, giza-biotzean ez dago ezer ain ezbardin, enparauen biotzean bizirik aurkitzen ez danik.

Ara, nire berbak zure gurari ta ezkutukiak igarri. Zure eskutuki ezkutuena diranak, Jaungoikoak bakarrik dazauzanak; nirean bezela, zure barne bizitzaren ibar bigunean Jaungoiko-ereskidetasunaren usma leiatsua erneazoten dabenak.

MAITASUNA

I

Maite zaituenak lotu nai zaitue, eurakandik alde ez dagizun.

Berak, ostera, ez dau olakorik egiten; izadian azke itxiten zaitu, txoria arboladian bezela.

Eurak, zuk aztuten ba'dozuz, beste alde batera jotzen dabe. Berak ez zaitu itxiten; zuk iges egin arren ez da aldentuten; bere maitasuna zurea atzera noiz etorriko begira dago.

* Eurakaz beti estu ibilli bear dozu berandu edo ez-orduan etorriko ete zarean.

Beragana eguneko edo gabeko edozein ordutan joan zeintekez. Edozein orduari ondo deritxo, ta beti be zure zain egoala ikusiko dozu.

II

Dan-dana atonduta neukan, Jaunak bere garaian berba egin oi eban, ta abagunea etortzean maitasun-berbak zuzenduten neutsozan.

Ni pozez beterik, eta Bera be olantxe egongo zalakoan nengoan. Era orretara guztirako lekua bagoan ta gauzak oro garai ta neurri egokian egiten ziran. Zer besterik opa leitekean ez nekian.

Bein baten ia nigaz pozik egoan itaundu neutson Jaunari.

Ta Berak erantzun eustan:

—Urten zure betiko neurribide orretatik. Aldiz eta neurrizko maitasunak ez nau atsegin duten.

III

Ni kanpoan nengoala etorri ziñan. Ta iñork atea zabaldu barik, bertan bera itxitako nire bizilekuan sartu ziñan, ene Kristo!

Arrats-beran, itsas-txoriak abira doazan garaian, atzera biurtzean aurkitu zindudazan. Ta nire etxe-ko ateburuan zure ezaugarria ipiñi zenduala oartu nintzan.

Arrezkero zure laguntasuna beti atsegingarri izan yāt. Zure leuntasun setatiaren oroipena bizitzan pozibide ta ene leiora datorren aize leun bakarra dot.

Arrats-bera aretatik zure maitasuna ta zure begitartea nire bizi-bide neketsuaren gozagarri yataz.

IV

Ustegabeko lekuan zintzotasuna aurkituko dozu. Aurkitze onek biotza pozaraztuko dautzu, lore-aurkitzeko batek legez.

Beste batzutan, uste zenduan lekuan ez dozu aurkituko. Orrekek izango dira zuretzat bizi-aldiko ordu illunenak.

Alan be, maite dozuzanak ez beartu zurekiko zintzotasuna agertzen. Alperrik izango litzake ta, txori baten abestia edo lore baten egunsentia aurreratu nai izatea bezela.

Zintzotasuna olan emoten ba'yatzu, garbi ta usain gozodun, kontu egizu joana dala ta ez dala bizi zuk uste zenduan tokian.

Ez dagizula opa, maitasunetik berez sortzen ez ba'da, iturburutik ur gardena jauzika darion lez.

Jaungoikoak bere ez dau maite zintzotasuna olan ez ba'da. Ez egizu inoiz aztu.

V

Egia da, batzutan, ez nazala joan zure deira. Ez naz urten Zu nire begira zengozan lekura; alan be, nire biotza beti Zugaz egoan.

Bizitzan zear noala, izatasunen alkar-jo gogor eta urrutiko bideetan nire biotza Zure ondoan dago, loto-lorea ur geldiazen ondoan dagoan legez.

Zure ardurapen gozoaren gogorapenak biltzen nau, amaren laztan-miñak umea bezela.

Nire gogai ta barne-taupadak Zugana doaz, mendiko biotz maitekorrean jaiotako ibai-urak itsasorantz doazan moduan.

VI

Igaro bear eban bide-ertzean Aren zain nengoan. Ikuspegi onetan zear baino ezin etorri leitekean.

Burua jiratzean nire ondoan ikusi nebanean, araño nundik etorri ete leitekean itaunka asi nintzan.

Ni aurkitzeko Berak egiñiko urratzak aurrez jakitea zein alperrikakoa dan buruan artu neban. Esan bide eustan:

—Gitxien uste dan bidetik elduten naz beti. Nire etorrera ustegabekoa da.

VII

Zure udabarri goiztarra joan orduko Berari dandana emon ziñan.

Ez zenduan neurriz egin, emoten zenduanaren ordaiñez artu bear zenduana gogoan artuta, Aitzitik, zure gaztetasuna opari ta oldarrezko buru-eskeintzan ixurtzen asi zan.

Eriotz-unera ibilten asi ziñan, urteak zenbatu barik, besteak baiño ariñago, maitasunezko laisterketa baten antzo.

Ibarrera eldu ziñan arrats bera baiño len, zure bizitzako eguzkia oraindik bere gingan egoala.

Era orretara lokarriak azkatu ziran, borondate leiatsuz, Berak iñoala:

—Nire gurariai igarri dautsezu:

X

Beragandik aldendu zintzazanean ez yatzun damutu, lilluraz maite zenduanaren atzetik joateko baitzan, aize ta muga guztietan barna.

Uste zenduan a txorien basoko askatasuna izan bear zala, loreen zorion dizdiratsua zabaldukeran.

Zure usain-gozo ta urruti-miñean ezek ez zinduzan lotu.

Egun baten, ordea, nekaturik atzera etorri zifian; zure biotz-taupadak geldiagoak ziran, zure bekokia otz egoan.

A ez zan azkatasuna. Negarra zerion.

—Zergaitik, zergaitik itxi ete neban?

XI

Jaungoikoaren billa asi nintzan idazti mardul baten orrietan. Jakitun batek idatzia zan.

Ekin ta ekin irakurten, ulertu naiez, baiña irakurtea nekeza egiten yatan ta nik Jaungoikoa aurkitu ez.

Idatzia itxi ta leiotik begiratu neban gau sogortu aretan.

Zeruak bere izar bare ta ixillezko zapia zabaldu ten, eustan.

Begiak itxi nebazanean Jaungoikoa izarren bidez aurkitu nebala iruditu yatan.

XII

Ikasi egizu ederrena maitasun-gezna bat dala ta obe dozula dan-dana aztu zure mugagabeko pozezko ustean,

zure nekeak aldean dozuzala jesarri ta ludiaren pozkarioaz poz artu,

ekatx bildurtiaren edertasuna ikustatu ta zeruagazko alkar-jotzean ez ikaratu,

egunsentian zeruari darion argia begiratu ta zure biotzeko azkenengo zokoraiño sartu daiten itxi.

udazkeneko aize bigunak jaso ta bere usain garbiaren lillura sentitu,

basoko eresi ezkutua entzun, urriko goiz onetan, ta bere edertasunaren lurrinkaiak biotza artu dagitzun,

zure naigabeak otoitz baten urtu, zure gogo-abesti baten egazka zerura joan daitezcan.

Ikasi egizu obe dala maitatzea, Jaungoikoa maitatzea, enparaua ezjakiñean itxita.

XIII

Apaindu zaitez, Bera etorteko dago-ta.

Jantzi zure gerrontze zuria, garbi-garbia. Ipiñi zure ari-utsezko oiñetakoak. Estaldu zure burua zapi gardenaz.

Ez bildurtu. Atondu zure larrosa-txorta, maitemaite baitauz Berak. Zure begien argitasuna ez daitela lausotu.

Eder ikusten ba'zaitu, poz artuko dau Berak.

Txukundu zaitez, ortxe dator!

XIV

Jaungoikoak ezin onartu leike zure maitasuna izan zan añaakoa ez izatea.

Onartu ete zeinke zuk maite zaituen notiañengan?

Txikiago iruditzen yakun maitasuna, izatea galdu bai'leban da.

Atzoko larrosa mardula gaur zimelduxe ikusten ba'dogu, ez ete da il ba'litz legez?

XV

Oldozketan nengoan zelan dabilzan ara ta ona nire gurariak, zelan dan aldakorra nire guramena ta zenbat bidar agindu dodan gaur biar beteko ez nebana.

Nire ustez Berak ezin izango eban ni maitatzeko arrazoirik aurkitu, ezta nik emondako berbaz, ezta nire oldozpenen iraupenaz fidatzeko be.

Nire gogalpen-aldian olan ari nintzan nire kolkorako:

—Maiteko ete nau aurrerantzean? Zelan maite al izango nau?

Ara bere erantzuna:

—Ezinbestean.

XVI

Nire ate-aurretik igaro ta deitzen ba'dozu ez naz izutuko. Ez zaitut itxiko ezezagun bat lez joaten. Ataburura urtengo naitzu barrura sartzeko esanaz.

Ba-dakit zure ikustaldiak nire norabidea aldatu dagikela. Ezezagunarena ez lakoa da; ezezagunak goiz-aldean bere bideari ekiten dautso azokarantza.

Alan ta guzti bere, gau otzean sarrerazoko zaitut ta, su-ondotan zagozala, itz egingo dautzut nekatuten ez zaitudan bitartean. Ondoren ixillean egongo naz, baiña nire biotza adituko dozu beti zureagaz izketan diarduana.

Azkenean atera urtengo naz zuri agur esateko. Zure argiango bideari jarraituko dautsozu ta ni gerizpean geldituko naz Zugaz pentsetako.

Urteteko esaten ez ba'daustazu, beintzat, Zugaz batera argitan joateko.

XVII

Maitasun ezezagunagana irrika bat nabaitzen dozu. Orregaitik ezin daustazu azaldu zein dan.

Peitzen yatzulako opa dozu. Zer ekarriko dautsun ez dakizulako bildurra dautsozu.

Besteak uste dabe bakean zoazala zure bizi-bide-tik; zeuk, barriz, topau ez dozulako kezketan zoaz.

Kanpotiko bide bat billatzen dozu, baiña ez da ori asmatu bear dozuna. Ezkutuzko aterpe bat, zurẽ barnean, idoro bear dozu.

Barneko gela dozu, arimaren barru-barruan, bertan bizi baita Bera.

XVIII

Maitasun andi batek ixiotuta euki biotza. Bestela ezin dagike azke ta argi iraun.

Ez dagizula bakarrik itxi, giza-biotza oñaztuaren antzekoa da-ta, jausi arte ez daki nun jausi bear dauan.

Maitasun ori zure bizi-indarra daiteke. Alan be, oiñazeak ez zaitu itxiko, iñor ez baita biziten maitasunean neke barik.

Maitatzen ba'dakizu, maitasun bakar bategaz naikotuko yatzu biotza. Berak beteko dau gozotasunez zure bizialdia ta mundu guztia baiño aztunago gertatuko yatzu.

Jaungoikoa maitatzen ba'dozu, Aren maiteak ez zaitu itxiko ta zure goizeroko poza izango da, otoitzaren bakartadean aurkitzean. Beragazko alkar-ikusteen oroitza zure bakearen azkurria ta zure bizitzaren pozgarria izango da.

Bidez zoazala iñoiz galtzen ba'dozu, gogoratu egizu maitasunak dana parkatzen dauala, aztu izana ezik.

Olan, Jaungoikoak dana parkatuko dautsu, gauza bat kenduta: Beraganako maitasunera ez biur-tzea.

XIX

Zer gerta ere, Jaungoikoagaz baturik egon bear dozu. Goiz epel-eguzkitsuan ta gabeko ipar-aizean.

Untzorriak orma bat besarkatzean betiko da. Uda beroan ta negu otzean bardin maite dau. Ez daki esaten: —Biar bananduko naz zugandik eta nire kontura aziko naz.

Zuretzat ez baita premiatsuena izan bear, goiz edo berandu olako edo alako errira eldutea, bidean laguntzen dautsun begitarte maitagarria baiño.

XX

Egun aretan, ene Jauna, bein be ni ez itxiteko agindu zeustala iruditu yatan. Arrezkero, noizean beinka, samin-egunetan ta gitxien uste nebanean zure abintza barriztau daustazu.

Lipar orrein argitan ikasi dot ez ninduzula iñoiz itxiko ta bein aukeratua ez dozula bein be bertan bera itxiten.

Geroztik, zalantzan nagoanean, zure indarrak nire argaltasunean diz-diz dagiala ikusi dot.

XXI

Urrundu zanean, zaputz lotu zan bere goibel-
tasunean. Ezin limurtu eben biurtzeko adoretuten
eben adizkide-itzak.

Gogaiak bere bakea artegatzen eben ta ez eu-
tsoen itxaropenari itxiten ernetzen.

Egun baten, goiz baketsuan, entzun neutson
esaten:

—Baketu biotz ori. Aintzirak ez dau islatzen
ortzea bare dagoanean baiño. Ta zatoz. Itxi ez ba'
ninduzun bezela izango da.

XXII

Urrezko goiz aretan Jaungoikoak nigandik itxa-
roten eban abintza azalduten ninyoan. Baiña, ez-
panetan ezmezean gelditu yatan ta ez neban esan.

Arrezkero, askotan etorri da itz ori, olatu sa-
mur baten antzera, nire bizitzako bazterrera, ta
bere zarata beti desegin da ondarretan.

Esateko neban berba esateko berandu ete dan
bildurrez nago, Jauna.

Gabeen, erriko etxe guztiak itxita dagozanean,
zure bizi-tokiko argontzia beti be biztuta dago.

Urreratzean, gau illunean, iraduz ibilli oi naz,
burdiñaga ipiñita aurkitzeko bildurrez.

Ateari eragin ta beti zabalik dago.

XXIII

Ez nagizu, anaia, ainbeste zerakaz estutu. Itxi egidazu Jaungoikoa bakean maitatzen ta ez egidazu ainbeste guzurrezko betebear jarri.

Kontuz, larregizko zamak oneraspena il legike ta bideko geldiunakaitik orrenbeste kezka, azke-nera elduteko eragozpen izan leiteke-ta.

Ara, izerdiak zugaitza bizi-arazotea da bearrezkoena ta azala marrazki askogaz apainduta ez ego-teagaitik ez da ardura andirik.

Itxi egidazu Jaungoikoa bakean maitatzen ta ez nagizu estutu, anaia.

XXIV

Egun asko dira atera urteten ez dozula. Orain ez zara aren begira egoten; aspaldi biurtu barik dagoala diñozu. Bidetxigorak illun dagoz eta, zure ustez, iñor ez da elduko areitatik

Onezkero ez dozu argontzia biztuten egunsentia baiño len, itzartukeran. Zertarako argitu bidea —diñozu— Bera ez baita agertuko len legez, urrundik datorrela?

Ta bakar-bakarrik gelditzen zara, argia amatauta.

Sarritan, uste ez zenduala, zure txabolaraiño etorri gura izan dau Berak, bidetxigor okerretik. Illun ikustean, ez zenduala naiko uste izan eban. Ez eban ikusi argia biztuta ta ez eban nai izan zure mukerkeria mutiritu, ezta zure okerkeriaz indarka ari be.

Goiz-alde guztietan argia bizturik ba'zeunko, egun batzutan zuk dakutsula ta beste batzutan zuk ikusi barik etorriko litzake Bera.

Eguzki urten barriak argituta Bera etorriko zan egunsentia garbi litzake ta baita gabeen datorken ordua ere, illargi dizdiratsupean.

Alabaiña, zure argontzi biztuta da itxarotearen ezaugarria.

XXV

Langilleak nagusiaren etxetik alde egin ebenean negua zan. Otzak igarota yoyazan ta euren oiñak bideko izotzan laprast egien. Ortzea illun agertzen zan. Eguzkiak ez eban egunez argitzen, ezta izarrak gabez dizdiratzen ere. Gizonak gose ziran.

Langilleak nagusiaren etxera biurtzean maiatze-ko illargia zan. Aize epel batek soloak loerazoten ebazan ta artizarrak ñir-ñir egian eguzkiari agur esateko.

Egun orretan gizonak ogi-opillak belaun-gaiñean ebagiten ebezan ta ogia nasai-nasai jaten inarduen.

SAMIÑA

I

Ez uste, gero, mingostasunak zure eroapena gainditu bear dauanik. Ezta itsaso andiak zure batel trankilla iruntsiko dauanik, ere.

Ilgorak zematu arren ta izpazterreko arkaitzak karrask egin arren, bitsezko mendiak jotzean, egon ziur olatuak ez dabela zure ontzia ondatuko.

Begiratu zelan dagian Jaungoikoak itsaso orroitsuaren asarrea bazterrak jazten ditun ondar gurgillaz aruntzago joan ez daiten.

II

Arratsalde orretan, baratzean, zure ixilla entzun neban. Orduantxe ulertu neban zelako miña emoten dauan biziak, baratzaiñak ur-zirristadak itxi bear dauzanean. Biziaren miña!

Solorako ona dan ordua izan ez arren, iturburu sakonetik ura dario ta mingots biurtzen da jauzi egiten itxiten ez ba'yako.

Asko ikasiko dozu ura bigunkiro geldiarazoten ikasten ba'dozu.

Orretara garbiago jausi daiteke. Orduan lorak ureztatuko ditu, zureztat eta eurentzako egoki dadinean.

III

Aren beartzen zara ezbear eta samin-aldian. Zorion ta poz-aldietan, barriz, aztu daroazu. Esaidazu olako leialtasuna atsegingarria ete yakon Jaungoikoari.

Bizitzak geiago egiten dautsunean Beragana zoaz laguntza-eske. Bidea aske ta zure egunak zoriontsu diranean, zoria ziur eta iñoren bearrrik ez dozula iruditzen yatzu. Ezta Arenik bere. Ikusten zelan dan ona zure burua bakarrik ikustea ta zoriona aldezko ez izatea?

Ikasi egizu olan oiñazean azten. Ezagutzen ez dauanak zer daki?

IV

Zugaz pentsetan, ene nagusi ori, millaka margotako lorak batu dodaz.

Nire gurarien millaka oiartzun iruditu yatazan ta uste neban begirakune bat lortuko nebala eurentzat. Eta, bearbada, niretzat bere bai.

Alabaiña, nire ezjakiñean, dagonilleko eguzkitan itxi nebazan ta, itzultzean, margul eta zimel Zuri eroaten lotsatu nintzan.

Olantxe nago, Zuri eskeintzeko lorarik ez dotala.

Larrosa gorri bat baiño ez daukat Zuretzat, nire bularpean gordeta.

V

Artega nengoan ta atea irigi gura neban indarrez bultzatuz.

Bein da betiko sartu nai neban ta giltzaz itxita egoalako asarretu nintzan, arik eta nire ezereza ta naikeri alperra apaldu nebazan artean.

Atarian jarri ta arpegia eskuakaz estaldu neban. Antxe negar egin neban nire arrokeriagatik, nire eroapena autortuz.

Orduan bakea ta zoriona atzera etorri ziran. Esan neban: —Jauna, ez dakit atea irigiten ta ezingo dot iñoiz indarrez zabaldu. Ementxe nagoke, nasai, zure maitasunak barrutik zabaldu arte.

VI

Zoritxarrak zure anaiaren biotza ikutu dauala igarri dagizunean, poztu egizu.

Oiñazea biotzeratu yatzula oartzean, ez ibilli ez-baian: zorioneko garaia dozu. Ta eskatu egiozu Jaungoikoari bere mezuaren guna adierazi dagitzun.

Bearbada, lipar argitsu baten, zure bizitzaren ezkutukia irakurteko giltza emongo dautsu Berak.

Orduan igarriko dozu oiñazeak argiaren ateak zabaltzen dautsuzala. Ta bakea zure gaiñera datorke, izarrezko euri ixil baten antzera gabeko illuntasun argitsuan.

VII

Atxillotua igartzen joian espetxean.

Berak, leiatillatik, itsasaldeko arkaitz-gaiñean, itsasontzi azkeak ikusten zituan ibiltzen urrunean.

Olantxe mamitzen ziran bere gau-egunak, itsaso urdiñaren gain ontziak ikusiaz.

Orduan inguruko burdin-sareaz aztuta, abestuten iñarduan ta azkatasuna berea zala iruditzen yakon.

*Ikusi dozu itsas-txoriak zein maite daben askatasuna?

Uin-gaiñean egaka dabiltz eta eurakaz olgetan jatsiten dira. Alan ta guzti bere, ez dautse itxiten atrapa dagiezan, bai ba-dakie eriotza etorriko litzakioela.

Azkatasuna txorien poza izaten da. Orregaitik dakie kanta politak abestuten.

VIII

Bearbada, urrutiko ezagutugabeko bideetan galdu ziñan. Begiak jasotzean ez zenduan urtepiderik ikusten ta etorritako bidetik atzera joatea eziña iruditu yatzun.

Bizitzaren amaraunak bere saretan bildu zinduzan. Ta atxillotuagotzat zenduan zure burua erioztzera galdutakoak bere espetxean baiño.

Goiz argian zure burua azke ikustean ulertu zenduan zelan Jaungoikoak, lasterbide galdu ta ezkutueta zear eroan dagiken biotza erregebidera.

IX

Ez uste, arren, Jaungoikoa urrun ta sorgor danik, zure aletin ta ezbearraz ajolarik ez dauala.

Olan uste ba'dozu, euri-tanta edo loretxo bat baiño eskertxarragokoa egingo zeunke zure burua.

Euriak ez dau bere narotasuna gordetzen, ezta loreak bere usaiña be.

Aitzitik, dan guztian dago Bera ta bein nai izan dauana iraunarazoteko arduratzen da.

*Intziririk txikiena entzuten ba-daki Jaungoikoak eta Beragaitik asitako negar-malko guztiak txukuntzen ditu.

X

Ez zaitez itundu bizitzako jokuetan ainbeste galdu dozula-ta.

Gogora ekarri egizu zenbat gauza izan yatzuzan on, ta zelan igali mingotsa ezti ta mats elduak biurtu yatzuzan.

Egun baten aize zakarrak jo eban ta zeunkan guztia eroan eutsun. Alan bere, biotza azke itxi eutsun ta oiñak katerik bage.

Bizi-aizeak eiotzen ari ziñan lili-txorta desegin dau. Zure umearoko jostailuak eroan zituan. Zure egazki urdiña ta zure ingizko ontzia eroan ebazan.

Ain bagarik geratu zara.

Jaungoikoaz geratu zara ta guztia daukazu.

XI

Gizonaren berbarena baiño indar andiagorik ez da munduan.

Esakera bitxia ba'da, biotzaz jabetu ta narraztatzen dau.

Giza-itza, maitasun batetik sortzen danean, garaitu-eziña ta sakailgarria dozu.

Gizonen onerako narotasunaren uberka be bai izaten da itza.

Bera baiño altsuago indar bat baiño ez dago: ixiltasunaren indarra.

Ixildu ta jasatea ez dira itzetorria baizen izkillu ditzikor, baiña Jaungoikoak ezinbesteko almena emon dautse. Ludiko indar guztietan ezek bere ez dauko orrenbesteko ala.

XII

Berak itxaron-erazoten dautsula diñozu, ez dautsula entzuten ta berandu erantzuten dauala; zure otoitz eta arrenak ez datozala atzera arin, saria dakarrela.

Emitza berandututzen ba'da, zuretzakoa lantzen ari dalako da. Itxaron-erazoten ba'dautsu, gogoratu zenbat egun luze itxaron-erazo dautsozuzan zuk Berari.

XIII

Ikusten dozunez ulertu eziña zara zeuretzat.

Zure lei-gogaien ondo zabalean galtzen zara. Gaur opaturikoa biar ezesten dozu. Gaur pozarazten zaituana atzo goibeltzen zinduzan.

Olan zara ta olan naz neu bere. Ez atsekabetu zure buruarentzat eta besteentzat ulertu-eziña zarealako.

Gogoratu egizu Jaungoikoak beti be ulertzen zaituala, gaur atzokoaren aurkakoa esan arren.

XIV

Ba-dakit ordu batzutan legea gogorra ta bete-eziña iruditzen yatzula.

Orduan galdetzen dozu agindua zuretzat, zure indar txikientzat eta zure biotz aularentzat jarria ete dan.

Baiña gogoan euki bear dozu legea ez dala egiña zure aultasuna arritzeko, zure koroia egiteko baiño. Ez zure bakartadearen segadarako, zure maitasunaren gorde-lekurako baiño.

Ba-dago norbait zure zirikaldiak baiño indar andiago dauana, bere eskutik ba'zoaz.

Beraren eskutik, zugaz baitoa.

XV

Izarrak itzali arren ez kezkatu.

Ez egin negarrik, ume baten antzera, Jaunaren begitartea edo itza ostentzen dirala-ta.

Ez baitagokio bidaztiari argia beti argitasun bardiñaz ikustea, ezta ereskidetasuna lillura bardiñaz asmatzea be.

Gogoan euki egizu tarteak bear dirala itxaropena probatzeko. Izarren ñir-ñira Ludiko ortzean baizen bearrezkoa da arimen zeruan.

Bein argia ikusi ezkeror-orduan ikusi zenduanez-argitu eutsun argitan jarraitu bear dozu, gau-erdian, ez bai yatzun emon poz-aldian bakarrik argitzeko; baita burrukan ta bakar-aldian be.

Ez aztu, ostendu arren, Bera bertan dozula. Ez zabiltz bakarrik; aitzitik zure urratzak bikoitzak dira. Bera zure ondoan dago, gabean lagun bat legez.

Ba-dago argia zuk ikusi ez arren. Izarrak itzali arren.

XVI

Bere anditasun esan-eziñezkoagaz oldoztuten nengoala, berba egiten neutson. Zerurantz jagiten nintzan Beragandik banatzen ninduan aldea garaituteko. Bera ain andi ta goitarra zan.

Alan be, iruditzen yatan nire berbak ez zirala ain urrun elduko, ezta ain gora joango ere.

Atsekabeturik nengoan, nire abots mearen bidez entzungo ez eustalakoan.

Alako baten Berak esan eustan:

—Ez egidazu berbarik egin, urrun ba'nengo lez. Biok batera gagoz.

XVII

Egizu egunean zure eguneango lana.

Jainko-ardurapenaren atzak darakutsun arloari ekin gaur, ezek bere zure barruko bakea ta zure gogo-baretasun sakona nastutzen ez dauzala.

Enparauak, atzokoak eta biarokoak, ez zagizala kezkatu. Jaungoikoak, aldiaren ta betikotasunaren jaubeak, joandakoa bildu ta etortekoa antolatzen dau. Zuk naiko daukozu eguneroko ibillbearra.

Gaurko urratzak egizuz alegin naroz, baiña iradu barik eta gogo-bakean. Zer izango danaren bildurrak ez zagizala larritu, ezta porrot-egiañaren apalkizunak be. Ondoren ona zeugan baitaroazu, Jaungoiko-ardurapenezko zure ziurtasunean.

Uste ona izan. Landu egizu baratza maitekiro, abesten diarduzula.

Jasan, ixildu ta itxaron. Egun baten zure larrosak zabalduko dira.

XVIII

Ez da ardurarik, Jauna, zure zuziak nire aurrean aldizka diz-diz ez ba'dagi.

Agian, olan obeto izango da. Illunpean besoak Zugana zelan jasoten dodazan ikusi dagizun.

Argia biztu arte eroapenez itxaroten ba-dakidala ikusi dagizun, ene Jaungoiko orrek.

XIX

Maite dozunagandik aldentzen zarealako negar egitean, giza-intziri baten oiartzuna barriztau baiño ez dozu egiten.

Zure urrutiratzearen miña ta erbestera doanari negar daragiona bat dira.

Zure ta bere aldentzean zalantza bera dago:

—Noiz ikusiko zaitut oster?

Urrutiratzearen naigabeak gauza guztiak etxekomiñez betetzen dauz eta barriz ikustearen itxaropenak bizitzaz.

*Maitasun-urrutiratzea,
aurrean egoteaz eta begitarteaz
baiño sendatzen ez dana.*

Jaungoiko-betetasunean ba-daiteke beti aurrean egotea.

Praillea bere espexetik urten ta Kastilla-azpiko lurraldeetatik ibilli zan, nekez.

Gazte zan, olerkari ta deuna.

Berrikuntza-lekaimetzeko ate-aurrera eldu zan. Bera agertzean lekaimetxoek pozkarioak ur-jauzi durundari bat emoten eban.

Tuntuna ta monja-gaiaren abesti samurraren otsa entzun ziran:

*«Naigabeak ezagutzen ez dituanak
negar-erri onetan ez daki gauza onik,
eta ez dau maitasunik txastau,
maitaleen soiñekoa naigabeak baitira».*

Izotz tanta bik diz-diz egien Kurutze'ko Jondone'ren matrailletan.

Bizitzak maite doguna itxiteko oiñaze-aurrean jartzen gaitunean, nekez onartzen dogu agur esan bear ori.

Notiñak eta gauzak gure-gureak izatea nai dogu; alabaiña, ez dakigu euroi agur egiten doazanean edo itxi bear doguzanean.

Alan be, uko-egitearen otzantasun ta sendotasunean datza zindotasun-ezaugarria. Arimak gitxiago balio dabe eukiten dakienagaitik, uko egiten dakienagaitik baiño.

Siñistu egizu, zorigaitza gizonarentzat altxor bat dala, siñismenezko baretasunak goitua danean. Ar-dura gitxi bear leuskigu munduak gu oinpetuak us-te izan arren, egitan zutunik ba'gagoz. Makurtu egizu burua maitekiro argibidearen aurrean ta siñistu egizu Jaungoikoak bialtzen dautsula zure ez-kutukia argitzeko.

Zorigaitz eta ekatx-artean Bera ikusi ta aurkituko dozu. Ta dana il dala dirudinean, zerbait barria jαιο dala zuretzat ikusiko dozu.

XXII

Maite egizuz gizonak miñetan dagozalako. Orre-xegaitik bere maite ditu Jaungoikoak.

Zure naigabe-aldian guztien naigabea ikasi ta zure larrialdian guztien larritasuna usmatu egizu.

Ondoren emon egiozu arpegia zintzoki zure ez-bearrari ta besteena arintzen alegindu zaitetz. Olan zure bizitzak bizi izatea mereziko dau, zure nekeetan zure burua landu ta giza-nekea arifiñago egiteko.

XXIII

Mugaitzetan, ezbai barik, esan uste onezko berba bat. Ez izan bildurrik Ardurapenak guzurpetu zagizan zure anaiari olan itz ba'dagiozu:

«Zure sifismena, sarien ta zori onaren kutxa irigiteko giltza da.

Alan ta guzti bere, bearrezkoa da abotsa ezbaian ez ibiltea, bildurrez. Bera konturatzen ba'da ez dozula sifistuten, zelan gura dozu Bera gelditu ta zure egoitzan sartzea?

Kontu egizu Goiko Ardurapena ibai andi bat lakoa dala, egikortasun ta ustegabetasunez betea.

Bardin dautso Berari edontzi andi naiz txiki bat betetzea.

Aldaketa zoriontsuena ta zabalketa ustegabekoa, bizi-ibaiaren uaitz orren barruan dagoz eta, zure uste onak ezkutukizko urak sorgin-makillaz jotzen ba'ditu, eguzkitara urtengo dira.

Eskuak batu, begi-biotzak jaso, jarraitu zure bi-
deari artegatasun ta bildur barik, zure arimaren
bake nasaian. Ardurapen samur eta alguztiduna-
gandik dana itxaron egizu.

XXIV

Zure neke-ondapenak erein ta ez egizuz itxi al-
perrik galtzen.

Euren edertasuna andia da ta euren ugaritasu-
naren ala indartsua.

Erein egizuz ixillik zure eroapen andiaren soloe-
tan ta egun baten Jaungoikoak loretu-erazoko dauz
eguzki-urtekeran zabaltzen diran lili-antzo.

Egizu zure oiñazeagaz amak seiñagaz dagiana:
kylunkatu ta aopean abestu, loak artu dagian.

Era orretara zure naigabea ixilla biurtzen danean
Jaungoikoak arinduko dau zaratarik bage.

Ta zure bakea aize bigun bat lez izango da, lili-
usaiñez, arratsaldean.

Eskeintza-altarera eldukeran, bidaztia auzpez jarri zan ta olan jardun eban:

«Ba-dakust, Jauna, gizonak emaitz eder asko damotsuezala.

Euren arri-bitxiz erantzi ta zure ontzi deunak apaintzen dabez eta larrosa ederrak ipinten dabez zure altarean.

Zure abadeen oialak urre-zidarrez egalundutzen dabezala ta andi ta txikiak zure gurtzarako ukarra emoten dabela ikusten dot.

Nik ez dot ezer ta nire oparia zein ete leitekean asmatzen nabil.

Iñok, nik ezik, eskeiñi ezin daiketzuna emon gura neuskizu.

Ta, orra, nire oiñazea aurkitu dot, nirea bakarrik da-ta.»

I

Zure buruaz aztu, zure itxaropen guztia Beragan ipiñita.

Ez alegindu ezer jakiten, bere adizkidetasunean murgiltzen baiño.

Ta bizi zaitetz ziur-ziur Bera baiño ezer ziurrik ez daukona legez.

Ez egiozu itxi Jaungoikoagan uste osoz jartzeari, esan dagitsun bildurrez: —Nundik nora ausartzen zara Enegana etorten, zure orrialdea ain oker idatzita dakarzula?

Ez izan orren bildurrik. Begiratu ondartzak zelan artzen dauzan maitez olatuak, orlegixka eta bedarraz beteta eldu arren.

Olatuak ez dabe bildurrik; aitzitik, lazotuta, nasai-nasai, ilten dira ondar bigunetan.

Zeuk bere ez izan bildurrik lazotu, zure buruaz aztu ta bere Errukiaren altzo maitekorrean ilteko.

II

Balio andiko jakintza bat dago: Uste ona izaten jakitea. Zure ate-aurrean erreka gardena igaroko da ta zure eskuetan artu besterik ez dozu egin bearako.

Jaungoikoak askotan erabagia zure eskuetan itxiten dauala ulertuko ba'zendu, gauza andia litzake. Ta barrutik erroiztuten ez ba'zara, ez yatzula ezer ikaragarriarik jazoko.

Garaikun-urketa ez yatzu emongo, jakiña, beragan atsegindu zaitezan ta sarri be sarri zure burua ur-ertzean ikusiko dozu. Alabaiña, egunerako bear dozun beste eukiko dozu beti.

Ez zagizala itxi uste on-kementsuak. Kemen-antitasuna Berak gaizkatu nai dauzanak artzen dabene emaitza da-ta.

III

Aigeruzko daukadanagaitik baiño bustiñezko daukadanagaitik geiago billatzen nozula uste dot, Jauna.

Zutunik nagoanean baiño aunatuta nagoanean geiago nigaz zagozala uste dot.

Zugaz aztuten nazanean ez zareala nire etsai legez jagiten ta urruntzen nazanean ez nozula lagatzen uste dot.

Besterik diñosten gizon batzuk ez zaituela lortuten uste dot.

IV

Joan ziñaneko gaba illuna zan.

Orain bere gaba illuna da, eguantza urrun egon ez arren. Ba-dantzuzu itz egiten dautzunaren abotsa.

—Biurtu, biurtu zaitetz, nire maitasun ori. Joan ziñanean guztiak lo egozan ta iñork bere ez dau jakingo alde egin zenduala.

Orduan orriak bellegi jausten ziran. Orain, barriz, bigun jaioten dira. Orduan lorak zimel ilten ziran. Orain lore-begiak kukulutan dagoz.

Entzun Berak diñotsuna:

—Munduak bere bideari jarraitu oi dautso. Izandakoa izan ez ba'litz lez daiteke. Biurtu, biurtu zaitetz atzera, nire maitasun ori!

V

Maitatua dala dakianak uste ona oi dau. Olan, uste ona maitasunaren lorea ta usain gozoa da. Gure biotz gaixoaren esan eziñezko egarria da, bere bai. Ezin dau bakarrik bizi ta bere baitatik urteten da, jakin barik, eutsi dagion norbaiten billa. Jaungoikoagazko uste ona ziurtasun orren betetasuna ta gure bizitzako egarri orren asebetea da. Beragan itzaroten ikasi dauanak dana ikasi dau, zeruko ez lurreko ezer peitzen ez yakola.

Oldoztu egizu ta uste onak azteko bakartadea bear dauala ikusiko dozu. Olan, bakartadea indar barri bat izango yatzu, Jaungoikoarekiko gozoa txastatu-erazoko dautsu-ta, zure Beraganako uste onari sakontasun ta umotasuna emonaz.

VI

Beatz-puntetan nenbillen bere aurrean, asarraturik itzartuko ete zan, zarata egiteko bildurrez. Ezbai barik nigaz asarre egoan, nik ondo nekian augaitik eta agaitik, Ziur-ziur bere eroapena aitzeko zorian egoan, nire gaiñean eriotz-kolpea emoteko gertu.

Olantxe, zalantzan aurkitzen nintzala, Berak esan eustan:

—Zure oldozpenak ganorabakoak dira. Ez yat atsegin zuk niri bildurra izatea.

VII

Jaungoiko-ardurapenak dana zuzentzen dau, baita zure bizitza bere.

Ez aztu iñoiz Bera astiro ta eroapenaz dabilhela, baiña beti be gura dauanera eltzen dala.

Berarena lako eroapena emoten yake bere lagun izateko duin diran gizonai.

Onetara, arima bakoitzak ba-dau beti bere ordua. Zeuk be zeurea eukiko dozu ta naikoa da berari itxaroten jakitea. Ez zaitetz alegindu berau arreratzan edo bere bidea okertzen. Ez esan Ardurapena, batzutan, ez dala ikusgarri egiten. Beti ikusgarri ba'litz, ez litzake iñoiz ikusiko. Esku ezkutu bat bezelakoa da, sakon, adierazo-eziña. Ikasi egizu zure buruaz aztuten, nasai-nasai, ikasi egizu zure bizitza bere Anditasun maitekorrean uste osoz ipinten; izarren zenbakia ezagutzen baitau Berak eta bakoitzari bere izenaz deituten dautso.

VIII

Jaungoikoak ezin ditu bere almenaren leikideak jasan; aitzitik, ezetsi ta goiberatzen ditu.

Txikien bakuntasunak eta txiroen apaltasunak menderatzen dabe Bera.

Eguzki-izpiak tantai-buruetan ta torretako orratzetan aparau egiten dabe.

Izan zaitez bakun, bedar barria lez, garbi egunsentia lez, alai itsas-gaiñetik egaz dabillen enara antzo.

Egizu zure bizitza tolesgabe; eresintasun bat baizen tolesgabea, kañaberazko txilibitu bat legez.

Izan zaitez jasankor, itxaron egizu bakean ta ari-ma artetsuen ezkutukia zurea egingo dozu.

Ta itxi egizuz zama guztiak Alguztidun danaren eskuetan.

IX

Zera diñostazu, zure ametsak desegin dirala, txori erraldaleen antzera joanak dirala.

Zure bizitza xaututa dagoala. Xaututa ta pipi-tuta, oialak pipiak bezela.

Artu zenduzan emaitzak banandu zenduzala antxiña, ta txanpon baltz-gorri batzuk baiño ez daukazuzala.

Zure zorion-ametsak atzean gelditu dirala, zartutako oroimenaren usaiñez.

Onezkero ez doala alai zure bizi-ibaia, zure urak geldi ta idor dagozala, zingira geldierazota legez.

Egun baten aize bolada batek arpegia aizeztatu eutsun, urrutiko piñudien usaiñez.

Ta egun zarretan legez asi zan barrietan zure bizitza alai ibiltan, zelaiko uraren moduan.

Idatzita dagoana gogoratu zenduan: «Ara gauza guztiak barri egiten dodaz Nik.»

Olakoaren ta alakoaren bildur naz, —senti eban bein berak.

Nire bizitzaren gaiñera datorren odei baltzaren bildur naz, —oldoztuten eban urrengoan.

Asita daukadan ibillaldi onen azkenak izutu egi-ten nau, —iñoan bere kautan etorkizunaren argi-ikuste baten.

Arik eta ortze ta itsaso zabala begiratzean gau-zen izatasun sakona bere eskuetan zala ulertu eban artean. Itsasontzia zulotuta izan ezik, ez zala on-datuko ibilkunde ekaitzuan.

Ta olan oldoztu eban: —Jaungoikoa lagun be-
kit. Bildurrari ezik ez dautsot ezeri bildurrik izan-
go.

Arrezkero bere biotza bildurge ta pozkor izan
zan, uiolaren jauzi pozkillea lez.

Bere naigabearentzat urtepiderik ez egoala uste ebanean, Kristo'ren Antz-bidearen berbak gogora-tu ebazan: «Ba al da ezer gaxik Niretzat?».

Ta pentsau eban: —Noragiñokoa izan bearko ete dau nire uste onak, Jauna?

Itaun durduriaren ondoren erantzun argitsua etorri zan:

—Ezbai zorrotzetan erreka bat itsasoan sartzen dan gardentasun naroaz sartzerañokoa, zalantza-erdian ziur atsedean artzerañokoa, ur-tanta bat itsasoan galduta bizi dan moduan, Jaungoikoaren anditasunean murgil egiñik lazoke-rian bizi izaterañokoa.

XII

Ba-dakit batzuk betiko oiñazeaz itz egitean, izua emoten dautsuela, Jaungoikoa maite dozun orreri.

Betiko gaizkakundea lortzea dan gatxa ta ondogabeko leizera amilduko diranak zenbat izango diran aitutzen dabe. Asko be asko izango ei dira, giza-gaiztakeria andia da-ta.

Olan oldoztutea naiago dabenak ez gaitue bear-tzen, ez zu, ez ni, era orretara oldoztuten.

Ez dirala ainbeste izango oldoztu al izateak poztu egiten nau. Baita poztuten nau bere uste onek:

Jaungoikoaren epaia ez datorrela bat guregaz eta giza-ondikoa andia ba'da, ara be andiagoa dala Jaungoikoaren errukia.

XIII

Ezbaiak zagozan uneak ba-dagoz.

Bide bat galdu ba'zenduan, zein zan gogoratu ezin arren,

goiz baten opa zenduan albistea ekarren mandataritari atea irigi ez ba'zeutson,

egun baten txoriak barri ona iragarten etozanean, zure leioa kolpez itxi ba'zenduan,

olgetan zenbiltzala, zeintzuk diran ez dakizuzan lora batzuk ebagi ba'zenduzan.

Baiña ara, bidea, txoriak, loreak eta mandataria zure etxeko atariraiño barriro datoz.

XIV

Zure borondateak aurrera joan bear dauala diñostazu. Zure biziari norabidea berak erakutsi bear dautso-ta. Olan, mundua ta gauzak zure naiaren araura ez ba'datoz, eta askotan nai ori menderatzen ba'dabe, arritu egiten zara.

Alabaiña, zure bulkoak geiago dan ta norabide guztiak antolatzen dauzan zerbaitegaz tril egiten dau.

Ez egiozu Ardurapenari aurea artu. Bera beti lenengoa doa. Arranditsu doa, Erregin bat antzo. Oso goian egan egiten dau, arrano batek lez. Ona da, ama bat lez.

Berak erakutsiriko bidetik joaten itxitea dago-kizu zuri, bildur eta arrisku barik, ibilten ez dakian ume bat baizen ziur.

XV

Atzera begiratzen dozunean auxe ikusten dozu: Zure aldia arin ta igeskor joana dala, zeru urdiñean enaraen jira-birak legez.

Arrikoskorak oiñak zauritu dabezan bide bat izan da zure bizitza; bertan neke-orduak atsedenezkoak baiño ugariago izan dira.

Ezer ezin aurkeztu dagikezula ta aizeak zure larrosondoan orri jausiak aizatu dauzala ikusten dozu.

Batu bear izan zenduan ondasuna barik ikusten dozu zure burua gaur.

Alabaiña, zure gogoz ez zenduan burruka itxi ta zure biotzak beti gauza guztiak baiño maiteago izan eban Bera.

Diz-diz egin begi zure uste onak bizi-ortzean, artizarrak legez; bedi ziur ta sakona, baso sarra-tuan etengabe darion iturburua bezela.

XVI

Ekin da ekin nire anai txikiari esaten niarduan ia Jaungoikoa maite eban; bestela inpernurako zala.

Bera atsekabetu oi zan, naiko maite ez ebala uste izaki ta bere burua kondentzeko bildurra eban. Saiatu egiten zan orduan; alan be, egunean baiño egunean bildur andiago sentitzen eban.

Berari bidea zelan erakutsi ta bere biotz samurra zelan baretu ez nekian.

Arik eta Jaunak, nik argitasuna eskatzean, olan esan eustan artean:

—Poztu egizu zure anaiaren gogoa, andiagotu bere uste ona ta ez deuseztu bere guraria. Esan egiozu gaitzespina ez dala ni maitatu gura nauanarentzat. Eta gogoratu egiozu ezin leitekela biotza bortxatu ta bildur-lurrean ez dala maitasunlandararik ernetzen:

XVII

Zure siñismenak irabazi ninduan, olan idatzi zeustanean:

«Izar bat daukat ene gidari. Jaungoikoak bere atzaz zeruan biztu dau. Zalantzatu, une baten itzali, baiña ez da bein be amatauten. Diz-diz dagi ta bere dizdira biozperatasunezkoa, itxaropenezkoa, errukizkoa, lazotasunezkoa da.

Jaungoikoak, nire bizitzaren Jaunak, beti emoten dautso argia nire izarrari. Dardar nagoanean, beragan lagatzen dot nire burua-Ardurapena dau izena-ta nire biotza ziur ezkututzen da bere al-tzoan».

XVIII

Aunaturik eldu zihan zure ibillaldiaren azkene-
ra, luze-neketsua izan baitzan, Zure oiñak odola
erioen ta bularra arnas-estuka zenduan.

Zergaitik jakin barik, lotsak zure matraillak
edertzen ebazala ta zure begiak ez zirala ausartzen
lurretik altxaten iruditu yatan.

Berak jzarri-erazo, oiñak igortzi ta izerdia txu-
katu eutsun. Gero ogi biguna emon eutsun jateko
ta ardao gozoa edateko.

Arrezkero, galduriko zerbait irabazten zenduala
ta ainbat bidar opaturiko bizitza zabaltzen yatzula
nabaitu zenduan.

XIX

Itxaron apur baten. Ez egizu aria apurtu, ezta
atea itxi be.

Ez uste bizitzeko ezer geratzen ez yatzunik eta
ortzea betiko illun danik. Ezta ere Jaungoikoa ezin
jadesteko moduan urrun gelditu danik.

Ez uste mataza ain biurria danik, ezin arildu
daitekenik edo zoriona ain ilda dagoanik, berbiztu
ezin leitekenik.

Egon, itxaron apur baten. Mataza berez ariltzen
dala ta galdutakotzat jotzen zenduan zoriona ez
egoala urrun ikusiko dozu.

XX

Arratsalde aretan artzaintxoa, zelai zabalean, artaldeagaz bere burua bakar ikusiaz bildurrez egoan.

Bearbada gau sarratuan bere oinaztuak jaurtiko ebazan ekatx illunaren bildur zan.

Bearbada illunpean mendietako edurtzatik goseti jatsiko ziran otsoen bildur zan.

Abereen lapurren bildur zan, bildots eta artzainak aiztoz erasoten ebezan-da.

Bildur zan... gauza askoren bildur zan, urrengo egunerako ta urrengorako.

Begiak jaso ebazanean, bere zalantzak ibar loretsuagaz eta zeruko narotasunagaz tril egin eban. Bere bildotsak zelaiko bedar barria ausnartzen eragoien. Txakurra lo zetzan. Eguzkia ostentzen joian, lurrari beroa emonaz.

Ta liburu sakon batek iñoana abade jaunari entzun eutsola gogoratu zan:

«Zer onura dakar etorteko dagoanaren ardurak, naigabea naigabearen gainean izan ezik? Egun bakoitzak naikoa dau bere nekeagaz.»

Idazti au zuzen egoala pentsau eban ta abestuteko gogo egin yakon.

Jaungoikoaren zeruak babestuta, izarren kozkopean, nasai-nasai loak artu eban.

XXI

Zure gogai bakartian eriotzaren etorrera usmatzen dozu ta biotza bildurrez daukazu. Bere esku zuriaz gidatuta urtetea igesten dozu. Bere irriparre itunak eta biziaren lurraldea betiko itxi bearrak izutzen zaitue.

Ez zalantzatu, itxi alde batera inoiz ez datorken irudipen ori ta deitu egiozu Egi-Jaungoikoari zuri laguntzeko etorri daiten.

Erabili gogoan igarotze gozo-argia.

Pentsau egizu Maitale-bezuza bategaz.

Ta begiratu zelan betetzen dan zure bizitza abintzaren atxonez.

XXII

Arritxu bat bestearen gaiñean ipinten igaroten neban bizitza torre bat eraikitzeke asmoz.

Bospasei arritxu ipiñita nebazanean aizeak putz egin ta nire lan neketsua desegiten eban.

Ni, barriz, negar eta miñez nengoan. Torretxu a nire bizitzaren ametsa zan ta beragaitik Ludian dan guztiagaz aztu oi nintzan.

Egun baten, nire galtzeak bideko gertakari ariñak bezela artu bear nebazala ulertu neban.

Zugaitzetako gerizpe zuzmursuan bakean gertzea ta gauza guztiak izan bear diran lez gertatzen itxi ta Jaungoikoaren atzak erakutsiriko bidetik joatea zein ona dan ulertu neban.

Ta tantaiak ere eskukoi, aizeaz kulunkatzen ikusi nebazan.

XXIII

Ez sifistu bein be zure bizitzaren ondamendian, zure ametsak burrukan apurtu arren. Ez jo garaitu ta ondatutzat zure burua, zure lillurak gaur atzeman ez arren.

Pentsau egizu Jaungoikoaren naia beti lortuten dala, ta nai ori maitasunezkoa, narotasunezkoa ta emaitzazkoa dala.

Gau baten naigabez ondatuta nengoan, nire bizia itxaropen bako ondapenean galdu zalako. Egunsentian txorien sinfoniak iratzartu ninduan ta argia odei-ertzeko alde guztietatik nire baratzan sartzen zala ikusi neban.

XXIV

Zoriontsuagoa izango zintzakez, zu beti bide-erakuslea izan gura ez ba'zendu.

Jaungoikoaren gurariari zure gidaria izaten itxi-ko ba'zeuntso, obeto ta ziurrago igaroko zeunke bizitzaren aldatza.

Bideko okergune bakoitzean zure egia ta elburua dana ikusiko ba'zendu, baketsuago biziko zintzakez.

Ikasi egizu ereti bakoitza, bere eskuz eroan zagan, Jaungoikoak bialdutako itsu-mutil bat dala.

Ta bizi zaitetz bakean. Zuretzako dan guztia bear dan garaian etorten dalako.

Odei-ertzaren antzekoa da zoriona; bein be ez da bere betetasunean atzematen. Lipar igeskor bateri are gitxiago eskatu zeunskio. Zoriona ibai edatsuaren antzekoa da; zure izatearen beraren sarkontasunean jaio ta eten barik doa.

Gogo-burruketan, biotz-naigabeetan, adizkidetasun-gozotasunetan, arratsaldeko bakean ta goizeko alaitasunean dana iges doa, ontzitxoaren lorratza itsaso andian ezabatzen dan lez. Ikusi ta gozatu dozunaren ondoren, maite ta jasan dozunaren ondoren, besteen zoriona egiteko bizi izatea zoriontsu izateko bide bakarra dala oartuko zara.

Ta gauza bat bakarrik egiazkoa, azken ta purru-teko gabekoa dagoala: Zugan ene Jaungoiko orren-gan, uste ona izatea!

I

Ez dozu ikusten zelan jatsiten dan zerutik edurra, zarata ta mingostasunik gabe?

Ez dozu ikusten zein gozo, zein bigun jausten dan zelai-gaiñean?

Ez dozu ikusten zelan datorren ixil eta iradu barik?

Ikasi egizu zuk be ai-ene barik jalkitzen, edurra zerutik jatsiten dan legez.

Ikasi egizu zure bideari jarraituten, Jaungoikoaren erabagiari emonda, zure ta bere naiaren batasun goxoenean.

II

Gertatzen dāna gertatzen dala, jazoten yatzunaren menpeko ez izatea dozu bearrezkoena.

Ara, zure jakintza guztia onetan datza: gaizkatu egizuz barruko bake ta azkatasuna kanpoko gauzen ondamentitik, zugaz oso lotuta egon arren.

Ez esan bein be: «Au olan jarotea gura dot gauza guztien gaiñetik».

Ez egizu bein be opatu, nai ta ez, Jaungoikoa-gazko zure barneko batasuna baiño. Ez, ordea, gauzak edo notiñak olan alan izatea.

Orretara, ez zaitez erroiztu jausten danagaz. Batu zakioez bakarrik, uts-eziñezko moduan, zure barne-adi-kidetasunari, Jaungoikoarekiko iraupe-nari.

Begiratu larrosondoak zelan itxiten dauzan bere larrosak jausten, bera eurakaz batean il barik. Olan obeto da, lili-buru barriak jaio ta munduan larrosak beti egon daitezaz.

III

Naiz ta izugarria izan, jauzi bat egin gura zeunke, ta mendi-gaiñera, betiko zorion ziurrera eldu. Zure zuzikakeriaren edesti negargarriak oiñazetzen zaitu-ta.

Eziña leiteke ori, baiña. Barrero asi bear au ari-ma zintzoen ezaugarri andia da; orretxegaitik baita zintzo, beti jagi ta barrero asten dalako.

Ez izan ezbairik, Jaungoikoak geiago zenbatzen dau zenbat bidar jagi ziñan zenbat bidar jausi ziñan baiño.

Ta zure erorkortasun andia baiño geiago zenbatzen dau zenbat ezin esan-alako bidar bere errukia garai atara dan zugan, zure etengabeko kemenean.

Auxe da bioztunen jardunbide arrigarria. Bekokian ikusi-eziñezko ezaugarria daroenak bein be ez dabez euren buruak ildakotzat edo galdutakotzat jotzen.

IV

Ez dakit zer daben gizon batzuen itzak. Aizun emoten dabe, berunezko txanpon bat punpatzen entzuten danean legez.

Euren ongi-naia zinestatzenago ta gitxiago siñistu leiteke beragan. Euren ezpanetatik abintza bikaiñak urten-ala, areikandik gordetzeko bearra nabaitzenago da.

Alakoen aurpegitik, ur baretsuen azpian datzazan arkaitz ilkorretatik bezela iges egizu.

Zeuk, ostera, zintzo itz egizu Bere aginduaren araura: «Bai, bai, Ez, ez.»

Zure egipenen zintzotasunak jarraitu dagiola zure berbaenari, goizaldeko argi-zirrintari eguzki-argiak jarraituten dautson legez.

V

Ez egizu zure egada eratzi, ez daitezala zure egoak autsi. Gora, gora, zure bizitza. Ez egizu sasetan itsasi, loretsu ta urdin iruditu arren.

Ara, zure biotzaren jaurerria ez da asetzen nolabaiteko irriparre bategaz, ezta adur bageko atsegin bategaz ere.

Zure begiak bakuntasunaren argitasuna galdu ezkeru, izarrak begiratzeko argi jaso ezin ba'dozuz, nora joango zara, gizajo ori?

Ementxe datza zure ezkutuki ezkutuen. Zugan orduoro bizi ta bizitza ta eriotza damotsuzan ezkutukia.

Ementxe zure gudaldia, ondo dakit. Ementxe zure gurenda.

Ez eratzi zure egada goitarra, ezta zure edurrezko egoen anditasuna be.

Gorago, gorago...!

VI

Aberats eta oparotsuak uste nebazan emaitzak eskeintzen neutsozan.

Olan sarritan ta egun askotan, baiña bere eskeronezko irribarrea nabaitu ez.

Nik emondako ainbeste emaitz baliotsuak atsegintzen ez ete eben galdetu neutson.

Berak esan eustan:

—Zu zeu zara nik gura dodan emaitza.

VII

Onezkero orrialde asko bete dozuz zure idaztian.

Batzuk itunak dira, beste batzuk alaiak; batzuk argi-garbiak; bestetzuk itsusi-illunak. Alan be, orrialde bat utsik daukazu oraindik: gaurko egunean idatzi bear dozuna. Gaurko orrialdea betetzeko dago.

Oldoztu ta alegindu zaitetz berau orrialde ederrena, zintzoena, sentikorrena izan daiten.

Goizero, itzartutean, gogoratu egizu oraindik zure orrialde ederrena bete bear dozula. Zure bizitzagaz idazten ari zaran liburuan itxi zeinken onena adierazoko dauana:

Gogoratu egizu orrialde ederrena beti idazteko dezula.

VIII

Larrosadiko ur-jauzia lakoxea izan zaitez; eten barik jauzika dago, azkenbako alaitasunean abeslari.

Zure leioan itzala damotsun lertxuna lakoa, sustriak lurrean ta burua zeruan.

Zure baratzeke gaioa lakoa, alai ta setatia, beti ur garbia atzera artu ta beronegaz garastatzen dauana.

Mendiko iturburua lakoa, inoiz zikindu barik zuri dirauna.

Zure lorategiko aien-bedarra lakoa, igon da igon eguzkiari beti bere lurruntza irrikoiak eskeintzen dautsozana.

Zure bizitzako ura garbiago, garastatzen dozu-zan lurrak zabalago, Jaungoikoaren begirakunea atsegingarriago ta geiago balio izango dozu.

IX

Gogoaren azkatasuna edatsua da, atsegingarri ta baketsua, ibai zabal bat langoa.

Alabaiña, maitasuna bere gozoa izaten da, bigunkiro kateztatzen ta biotza menpetzen dauanean.

Egia esan, ezin bizi zein tekez maitatu bage; baiña maitasunak langak ipinten dauz zure zelaian.

Zer aukeratuko ete? Biotza azkatasunean aize garbiaz gozatu daiten ala maitasunaren urrezko kateak lotu dagien?

Au dozu bizitzaren betiko gudua. Zure burua azke sentitzean bakartadeak min emoten dautsu ta adizkidetasun bakarra billatzen dozu. Maitasunari zure burua emotean, barriz, kateak aztun yatzuz eta azkatasuna gogoratzen dozu.

Maitatu ta zure biotzean azke izan ezin izango ete dozu?

Bai, al izango dozu; baiña lotuten dauana barik, azkatzen dauana maite izatekotan. Igarokor diran

aldaketai zure biotza emon bearrean, iges egiten ez dauan maitasunari emoten ba'dautsozu.

Olan dago idatzita: «Maitasuna nun, azkatasuna an.»

X

Ez itxi iratxoai zure etxean sartzen. Itxi egiezu ondo atea oldozpen baltzai, naigabeai, barne-guekin zure gazteluko bakea ondatu ez dagien.

Ez egizuz bein be entzun, naiz ta izpe jakingarriak egin gura dautsuezala esan. Entzun ba'dagizuz, euren sorginkerien ilgai biurtuko zaitue.

Kontuz, zure nagikeri edo burutapenen zirrikietatik igazi ez daitezcan. Eta sartu ba-dira, bota egizuz kanpora ezetariko gizabiderik bage.

Eukizu beti zure etxe-atea Jaungoiko-argiari irigita ta gau-iratxoai itxia.

XI

Zoriona da gizonaren elburua. Baiña emen lurreon ezin daikezu zure goi-deia osoro jadetsi.

Zoriona agertu ta joan egiten da. Sorkaldetik etorri ta sarkaldetik doan oiñeztarriaren antzekoa da. Lur osoak sentidu ta poz artzen dau, bera igarogiten da, baiña.

Zorion-uneak neke-aldi osoekin erosi bear dozuz. Zoriona betikoa ba'litz, sunsituko litzake, neke ta iguin biurtzeko.

Mundu onetako ordu atsegintsuenak billatzen ba'dakizu, Jaungoikoagan, zure gogozko irakurgaietan ta maite zaituen arima batzuekiko izketaldian aurkituko dozuz.

Aragi edo mundu-irritsa da giza-gogoaren barnezorionagaz gitxien alkartu daitekena.

XII

Lilluraz betetzen zaituan bidetxigor bat usmatzen dozu. Alabaiña, bizitzako izatasunekin jo ta ibilli bear dozun zelaitik urteten da.

Ordu urdiñen amets onek zure gogaiak jaso ta zure biotza baretu dagikez. Orregaitik Jaungoikoak zure leioan loretuten izten dau, naigabeen gozagarri ta egada-orduan egala izan dakizun. Baiña betiko bideari jarraitu bear dautsozu zure urratzekin, askok ezagutzen ez dabezan maitasun ta ezkutapean, ertz gabeko Errukiaren itzalean abestuz.

XIII

Ez zagizala izutu bizitzako burrukak eta ez egi-
zu itzuri arriskuaren ezbaia.

Jaungoikoak zure oial-ontzia ipiñi dauan bizitza-
ren uaitzetik iges egitera eroango zindukez bildur
orrek. Ez opatu bake illa, ur geldierazotuaren atse-
den elkorrak lortutakoa.

Ekin arraunean aurrera, gelditu barik. Oldartu
zaitetz bizitzak eroan zagizan Jaungoikoak idatzi
dagian lekura elduten.

Errekaren putzuetan geldi, atzeratuta gelditzen
dan ura iñoiz bere ez da itsasora elduko.

XIV

Ba-dakit ezkutuki bat daukozuna. Porrot egin
dagian bildurrez zagoz eta orregaitik ez zara ausar-
tuten bere ezkuta-lekutik ataraten.

Zure guraria jadesteko borondatea trebetzen
emoten dozu bizia, baiña ez dozu mamiturik ikus-
ten. Gura izaten guraz doakizuz egunak, baiña be-
netan gura ez dozuna autsi barik.

Olan zure bizitza iñoiz lortu gabeko amets ba-
ten aitzen da.

Eguzki-sartukeran, guzti au gogoan darabilzu-
nean ba-diñozu intziriz:

—Jauna, noiz izango ete da?

XV

Errekaren uretatik edan bear ez ba'dozu, itxi egiozu garden joaten.

Zertarako gelditu-erazo joku anker baten? Zergaitik loitu ta bere alaitasuna kentzen dautsozu?

Beerago, ezpan igar batzuk eta bular nekatu bat iturburu orren ur gardenaren irrikaz dagoz.

Ez ete da pekatu izango zuk, ura loituteagatik, urrunago itxaroten dautson zure anai egarberari edaten ez itxitea?

XVI

Bidea betiko galdua zala uste zenduan. Baiña ez zan olan gertatu. Zure bizitza billakatu egin zan, egoak jaioten yakozan arra bezela.

Gizonen egin-gogo ta eurak marreztatutako lakioen gaiñetik Jaungoikoak bere bide ezkutua egin eban, zuk zure burua gauza askoengandik azke ta zama askoz arinduta ikusi zengian.

Ez geiago pentsau ondatuta uste dozuzan urteetan, Galdutakotzat jotzen dozuzan egunak eta orduak zure biotzak bear dauan oiñarria bezela izango dira.

Ta zure bizitza deseginda iruditzen ba'yatzu be, ondo osorik dago. Barriro be eraikitzeke lur-zati bat aurkituko dozu beti.

XVII

Ez aztu egunak lurra lantzeko emon yatzuzala.

Arri-bitxia lantzen dan legez, zure biotza lantzeko, argi ta diztikor izateraiño.

Kanpo-aldeko lurra, zure landa, lantzeko emoten yatzuz egunak. Zelai zabaleko lorrotz bardiña lantzen dan legez.

Egunak zure bizitza ta zure larraiña lantzeko emoten yatzuz.

XVIII

Noiz ausartuko zara, zure ontzian, ibai zabala-
ren bestekaldera joaten?

Gau-egunak itun iges egiten dautsue, koldartzen
zaituana opa dozula.

Zidarrezko urak itxaroten dautsue zintzo ta na-
re, zure ontzia belardi bigunera bildur barik eroa-
teko.

Alan ta guzti bere, zuk itxaron ta berandutu egi-
ten dozu, zure lora zimelen txorta eskuetan estu-
tuz.

Ez al dozuz ikusten beste ertzeko zugaitzak, ar-
nariz gaiñezka, udako aizeaz kulunkatzen?

Ez al dozu arnastzen aize usainduna, ur-gaiñetik
laisterka datorrenean?

Aize bizia aurreko ertzetik dator.

XIX

Griñaz erre ta lipar baten amatauten dan maitasuna ez dagiala zugaran laketu Jaungoikoak.

Maitakeriaren garrak ez zagizala erre, oiñaze zimelean iratzartu-erazoteko.

Jaungoikoak emon begitsu maitasun garbi-eldu bat, igali mardul bat langoa, bigun ta garden, larratxoriaren kanta gari-soloetan langoa. Bizitzan aize garden bat lez sartzen dan maitasun bat, euri nare bat lez ugeltzen dana.

Auxe jadetsi bear dozu: zure bizitza ez daitela zorakerietan autsi; aitzitik edatu daitela biotz-abintzan gorderik dagoan egiazko maitasunaren usaiña arnastzean.

XX

Gura ez dozun gaitza egiten dozu ta gura dozun ongiaren esne barria ez dozu mamitzen.

Esan gura zeunkena ez diñozu ta egin gura zeunkena ez dagizu.

Ganora barik ari zara aurraunetan. Elburu bage laisterketan ari zara, gura ta gura ez dozula.

Berak ez dauala iñoiz etentzen ta beti atzera biurtzen dala diñozu. Iñoiz bere ez dala itxarroteaz nekatuten ta zu itxi ondoan barrero begiratzen dau-tsozunean irribarrez dagoala diñozu.

Olan dalako ezbairik ez dot. Ekatz eta zure biotz-oieren ondoan Bera beti atzera etortzen da.

Esan egidazu: ori dala-ta egotzi nai dozu gaur?

Dana txarra izango ete? Ezingo dozu bizi-eguzkiaz gozatu kiskaldu barik edo ta ezingo dozu argia ta aize argitsua edan, edena arnastu barik?

Ez bildurtu ta zabaldu biotz ori. On diran gauzak maite daikezuz. Maite bear dozuz. Besteen maitasunari maitasunagaz erantzun dagikeozu.

Baiña biotza joaten ba'yatzu, bidekatzen ba-yatzu-gizajo! —ez egiozu itxi alderrai ibilten, ezta gabea galtzen ere.

Itzuli egizu maitekiro etxe zuriko sutondora, zугaitzen gerizpera, erreka gardenaren ondora.

Ez zaitetz zeugandik aldendu. Ez zaitetz Jaungoikogandik urrundu.

Ba-dakit artegatasuna somatzen dozuna. Urrutiko gauza ezezagunen egarriak, maite-ametsak, azkatasun-naiak, zure bakartadean larritzen zaitue.

Aztu ta izatearen mingostasunak igesi egin nai dituzu. Ba-diñozu: —Laster egin, joan gura dot... Entzun. Nora joan gura dozu? Nun babestuko zara edo zein aize billatuko dozu? Elburu barik urten gura dozu ala amets eldugaitzak atzeman gura dozuz?

Edan nai dozun iturburua iñun be ez dozu aurkituko, zugandik kanpo. Digarozan itzalak ez dautsue emongo opa dozuna. Zure artegatasunaren ezkutukia zure barne-azkatasunean argituta geldituko da.

Jaregiten ba'zara, azke geldituko zara, ta egunsenti indartsuaren aize argia arnastu al izango dozu.

Orduan, billatzen dozuna zure barruan aurkituko dozu, inork ondasun igeskor baten ondoren arnas-estuka ibilli ondoren, azkenean bularrean ezkutauta aurkituko ba'leu legez.

XXIII

Zure oiñak ez daitezala sareztu bidea zearkatzen daben ingietan. Ez zagiezala atzipetu zure lillura biztuten daben erakarpenak.

Margo orreïn argiak eta argi orreïn dizdirak ez dabe egi-proba utzultzen ta zure biotza ostera be zimel eta itun geldituko litzake iruzurraren ezten sakonaz.

Kontuz, bere atsegiña eskeintzen dautsun poz bakoitza gabean diz-diz egiten dauan intz-tanta bat da, goi-eguzkiak desegin daroana. Ain da labur bere gaztaroa ta goiztar bere eriotza.

Obe dozu Betiko Edertasunaren baratzean sartu, an egunsentiaren urrezko argia zabaltzen da ta Jaungoikoak eragiten dauan eresi ixillak atsegindu oi dau, jazmiñien usaiñak zure zentzumena asetuko dau.

Baretu egizu zure biotza ta irakatsi egiozu onetzaz baiño aretzaz poz andiagoa artzen.

Bide biotatik ezin joan zeintekoz. Baratz biotan ezin zeinke atsegin artu.

Ez egizu zaldia lotu loretan dagoan ur-ondoan, Zaldia igitu ta lorak jausiko dira.

XXIV

Berari agindu zeutson maitasunean errez iraungo zenduala uste zenduan. Egun aretan dana argi ta nare usmatu zenduan-da, Jaungoikoarena bakarrik izatea erabagi zenduan.

Ondoren zure biotz-abintza aztu zendualako arri-tzen ziñan. Zure atsekabea andia ta bildurtia zan.

Orduan asi ziñan ulertzen maitasuna ez dala izotza langoa; onek bere izatean geldi ta sorgor irauten baitau. Neguan lei eginda geratzen dan aintzirako ura langoa ez da, maiatzean laisterka doana langoa baiño, eguzki ta gerizpe-ikuspegiak, ibar soilduak eta loretsuak atzean izten dauz-ta.

Baita ere ulertu zenduan maitasunak une bakoitzean dana itxi bear dauala, errekaen ur gardenak, mendi-mazaletik jatsitzean, dana itxiten dauan bezela.

EMAITZA

I

Ez ibilli orren arin. Begira, ibaien uaitzaren urloak baizen bearrezkoak dira bizitzan geldialdiak.

Oneitan zure burua dan lakoxea ikusi daikezu, aintzira narearen ispilluan zumeak bezela.

Zuk izan gura dozunak beteko zaitu sakonenetik naretasun ta bake-orduetan. Aldiaren jaube izango zara ta ez zaitu menpeko lez narraztuko.

Olan Jaungoikoa bere oiala egalunduten joango da ta zure burua aurkitzen ta zure bizitzaren jomuga sakona, laisterka zoazala billatu ezin dozu, adierazoten ikasiko dozu.

II

Dagizun onaren alde Jaungoikoak zerbait emon dagitsun itxaroten dozun artean, ez zara eldu emaitz osoaren betetasunera.

Gatxa da doai au goizean eukitzea. Beronegaitik biotza betetzen dauskun saririk onena maitatzea da.

Tontor orretara iristeko arratsaldera eldu bear da; bertan maitasunak norberekoikeria garaitu dau ta barkapenak koroatua izan da.

Maitasunean zaindu, arindu ta barkatzearen poza nabaitzeko arratsaldera etortea bearrezkoa izan da.

Ta bantzean poz artzen dauan emaitz ori bizitzaren onespén bikaiñena da.

III

Urak liñu zurizko zapia eroan eutsun, baserriko errekan ikuzten zenduanean.

Zure oroitzapenen zapitxoan zan ta, maitasun ikuzten zengozala, uaitzak eroan eutsun.

Errekan bera joiala, ai ene! iñoiz bere zure eskuetan ez zenduala barriro eukiko gogoratuaz negar egiten zenduan.

Ur lasterra begiratzen zenduan, zure ondasuna zuri biurtu al ba'leu lez, ta bere ondwan arri biritu, zuri ta geldiakaz topo egin zenduan.

Orduan ulertu zenduan zapia joan yatzula amets baten antzera ta zure bizitzak ixil eta nare iraun bear dauala, arri bat errekan legez.

IV

Goizean goizik mats-biltzaillekin zelaiko bidetik urten neban.

Bidea luzea ta nire ibillera uzkurra ziran.

Eurak ariñago joiazan ta atzera itxi ninduen.

Ni eldu orduko mats urrezko guztia bilduta euken.

Mats-mordo gordiñak baiño ez ziran geratzen niretzat. Eguna galduta zala iruditu yatan.

Alan ta guzti bere nire otzara bete, lepo-gaiñean jarri ta baserrirako bideari ekin neutson.

Olan oldoztuten bai neban: —Jaungoikoak nire mats-mordoak bideko eguzkiagaz eldu-azoko dauz.

V

Sarritan zure poza ain da bakuna, ia lotsa emoten dautsu.

Eguzkia dalako, ume batek irriparre dagitsulako edo aize ozkirria sartzen dalako pozik zagoz. Poz ori Jaungoikoak emoten dautsu.

Abestu ta poztu zaitez. Ta ez arduratu zure pozak munduarentzat daukon baliogaitik.

Ez egizuz denpora ta bizia alperrik galdu iges egin gura daben gauzak opatuaz.

Zergaitik mingosten dozu zure bizitza andinai gaitzekin ta uzi luzeekin?

Goiz-aizea arnastzean ta illuntzeko aizearen abestia entzutean eukizu zure burua zorionekotzat.

Udan gerizpean jesarrita edo neguko eguzkiak sendotuta, munduaz eta bertan dagoan onaz obeto jabetuko zara amets andien atzetik ibilliaz baiño.

Zorionekoak biotz-bakunak, Zorionekoak Jaungoikoak gizon guztiai bardiñean emoten dautsezan ondasunekin pozik bizi diranak.

VI

Bizitzak zure galpen edo eriotzaren gaiñean igaro bear ba'dau, emon egiozu igaropide zabala.

Eukizu kontuan bearrezkoa dala egun bat gautzea urrengoa argitu daiten. Olan Jaungoikoaren lanaren joan-etorria ez da gelditzen.

Aldiari igarobidea itxitea dagokie jakitunai, ez ordea ustegabeko il-agiñean gogor egitea.

Jaungoikoaren esku-keiñuaz ezkututzen jakitea onai dagokie. Olan doaz ixillik izarrak urrezko egunsentia argitzean.

VII

Ez egizu jakin gura datozen urteetan zugaz zer izango dan, ezta ibilten zoazan bideak nora eroango zaituan be.

Ez zagizala kezkatu bidetxigor ori beste jo-muga bateri ekiteko okertuko ete dan jankin-naiak, ezta mendi baten aurrean sarratuko ete dan ala leza baten aurrean amaituko ete dan be.

Ekin aurrera, nare, urratz bat bestearen atzean emonaz, gaur urteten dan eguzkiagaz poztuaz eta ostenduten danagaz naikotuaz. Etorkizunaren bildurrak ez dagitzula biotza uzkurtu ta oraingoarenganako maitasunak ez zagizala okertu asitako lanaz gaurko eguna betetzetik.

Otseiñak bear dauana orduoro billatzen dauana ba-dago ta Jaungoikoaren maitasun bulartsu ta ziu-rrari ezer oarkabe igaro leikiola pentsatzea alperrikoa litzake.

VIII

Nigan sentitzen dodanean izaki guztiak ixiltzen dira.

Orduan ibaiko ura geldi geratzen da, aizea ez dabil, izarrak ixillik dagoz eta orriak igige zugaitzetan.

Ixiltzen diran izaki guztietan Berak itz dagi.

IX

Munduari guztia emon zeuntson ta Jaungoikoa-
rentzat ezer ez dozula diñozu. Larrosondo bat ne-
guan lakoa zareala, adarrak orri-loreakaz billostu-
ta ta azubillean izerdi ezkutauta baiño geratzen ez
bai yakoz.

Biotzaren izerdi ikusi-eziña baiño ez yatzu gera-
tzen.

Esan egidazu, arren: Ori ez al da zure bizitza
osoa ta emon bear dautsozun guztia?

X

Iñoiz bere ez egizu nekea zure eskuz ezarri. Ez egizu uste iñork zigor bat merezi dauanik, bizitzak ta Jaungoiko-zuzentzak emon ezik.

Ez egizu aztu barru-barruak egiten dauzala on edo gaizto giza-egipenak, eta ez zuk, ez nik ez dogula ezagutzen aztakin ezkutu orren misteriozko azta-orratza. Ori dala-ta, itzalez gelditu bear gara iñoren kontzientzi-atariaren aurrean, ta bere ateak oldez zabaltzen ez ba'yakuz, sartu gaitez an eratasun andiz, kutxa arin bat idegi edo troskaki bikaiñak erabilten dauzana legez.

Ez dago ezer Jaungoiko-zuzentza ta errukiaren joku ori baiño ezkutuagorik. Eurak korapillotu ta bat egiten dira, gauza bakoitza bere lekuan ipinteko ta bakoitzak merezi izan dauan baiño geiago artu dagian.

Bakoitzari dagokiona emoten dauan zuzentza ori beti garai ataraten da. Baiña, batez be, beti garai-

tzen dau errukiak, maitasunaren gaiñez egiteak. Beronek emoten dautso beti Jaungoikoari garaipe-na ta beronek adierazoten dauz gure ezereztasun ta aultasunaren ezkutukiak.

XI

Ez zaitetz arritu giza-maitasunaren eragabekeriaz. Ertz-gabeko itsaso bat eta uberka gabeko ibai bat dozu giza-biotza. Bere ezkutuki ta bideak iñork ezin iragarri dagikez.

Ez zaitetz biotzaren zorakeriaz arritu. Arritzen dana itxurati bat edo gizonaren izate ta bizitzarekiko ezjakin bat da.

«Nik ez zaitut galduko», esan eutson Berak, salatariez inguratutako andra pekatariari.

Andra aren eragabekeriak maitasunak itsutuak izan ziralako, urrean.

Ez egizu erruki barik gaitzetsi. Giza-biotz gixajoaz errukitu zaitetz.

XII

Bearbada besteak ezagutzen ez daben kezka bat dago zure bizitzan. Agian, norbait da zure antzerkiaren zergaitia.

Batzutan gibelmiñaren odei baltza zure ortzean agertzen ba'da, zer berezkoagorik? Ez izutu zure eremuko ondarretan gorrotoaren aize zakarra altxatzen ba'da.

Aitzitik, gogoan eukizu zenbat galduko zeunken ta biotzak zelan itxiko leuskion zure bizitzari odol bikaiña botatzeari, zure gatxean ondatuko ba'ziña.

Aldatu egizu lekuz zure begirakunea, ikustatu egizu arana, entzun egizu urretxindorra ta poztu zaitetz, parkatzen dakianari maitasunaren bideak oro zabaltzen yakoz-eta.

Maitasun-tanta batek gorroto-itsaso batek baiño almen andiagoa dauala ulertuko dozu. Ta intzaren ikutu leunak geiago menperatzen dauala lorea eka-txaren orruak baiño.

XIII

Ez zaitetz geratu zure oldozkun itunak ausnartzzen, ezta izan diran gauzakaitik intziriak aletzen bere.

Ez egizuz orduak alperrik galdu ildako larrosen orri jausiak biltzen.

Peitzen yatzuzan egunak zuretzat uzta gordetzen dabela ta zure aurrean ikusten dozuzan zugaitz orreik opa dozuzan arnariak euren barruan ezkutatzen dabezala oldoztu egizu.

Izandakoa itxi ta Jaungoikoari egotzi egiozu. Ipiñi besoa zure lurrean ereiten ta Berak bertan elduazoko dauan garia biltzen.

XIV

Kuskutan dagoan lorak bere usain ta zoriona gordetzen ditu, baiña ezin bizi daiteke zabaldu bariik. Eguzkitan zabaltzen danean, eban guztia galdu ta eriotzera agertzen da.

Billatzen dauanaren jadetsi-eziña, orra biotzaren il-agiña. Itxita ta bakarti diraun artean, kezkatu egiten da ta ezagutugabeko maitasunaren ezinegonaz oiñazeetan dago; bere baitatik urten ta esku-zabal emoten danean, barriz, jasan ta galenaren mingostasunaz il egiten da.

Zein ezkutuki da au, Jauna? Zer izango ete da obe, gabetzean nozitzea ala okitzean nozitzea?

Ez ete dago beste biderik gizonarentzat?

Entzun, biotza. Ez egiozu itxi maitatzeari. Ez egiozu uko egin gogoaren atsegin garbiari, ez egizu il joan doan atsegiñaren iguiñaz. Zure bidea maitasun egiatzko ta gardenarena izan bedi. Bedi argi ta sakona zure naimena, Jaungoikoaren antzekoa.

Jaungoikoa maitasuna da.

XV

Ez izan bein be iroirik zabaltzen yatzun arima jausiarentzat.

Galdu dauanari ustea emotea, giza-biotzaren egikizun andiena da.

Lotsa danari kemena emotea bizitzako jarduketan oparotsuena dozu.

Eskua emon ta lokatzen datzana jasotea, orra gizonak egin dagiken bikaiñena.

Ontzi-ondapenaren olak batu ta lurrerako tokia erakustea, gogo zintzoaren ezaugarri argiena da.

Galdutako biotz bateri itxaropena emotea baiño atsegintasun andiagorik ez dozu eukiko.

Bestela ezin egon zaitkekez Jaungoiko-maitasunetik bertago.

XVI

Daukozuna emon, emoteko emon eutsun Jaungoikoak-eta.

Emon egizuz zure itza, zure bizitza, zure igortzia ta zure itxaropena.

Zertarako gorde nai dozu ur gelditua? Azkatu ba'dagizu, bere uaitzak ludia poztuko dau, zelaiak garastuko ditu ta gizonai edaten emongo dautse.

Zertarako gorde nai dozu zure garia mandioan? Ez daukenai bizia damotsen ogia egosi zeinke beragaz.

Ara, bidean banatu zenduzan ur preskoa ta ogi zuria Berak maitasun biurtuko dauz.

XVII

Ekatzak bere asarre bizia irausten dauanean, dana dardaratzen da. Orbelaen karraskak eta txakur-
ren aietsak oiartzun batek legez erantzuten dabe.

Baratzeko larrosa, aldiz, ixillean irauten dau.
Eguzkia urtekeran len baizen eder ta usaintsu ager-
tzen da bera.

Ekatz gogorra ba-digaroke. Larrosa otzanak
iraun egiten dau.

XVIII

Ez zaitez nekatu gozotasuna ereiten. Larroson-
doak landatzen ba'dozuz, larrosak bilduko dozuz.

Arribideko arriak adiakatu ta sukarrietan jauzi
egiten dabe, burnizko pikoak euren gain jausten
diranean.

Ur bigunaren etenbako igurtziak eta abesti go-
zoak leun ta biribil egiten dabez ibaiko arriak.

XIX

Jaungoikoak eskeintzen dautsun edertasuna ar-
tu ta ez egizu leiatu zure bizitzako ortzean istatzen
ez dauana.

Edertasuna zure aurrean ibaika digaro ta zuk
joaten itxiten dautsozu. Eskumenean daukazuna on
da zuretzat.

Eguzki-ezagaitik negar egiten dozunean, gabean
zure begiak ixurtzen dabezan malkoak ez dautsue
itxiko izarrak begiztatzen.

XX

Esateko daukazuzan itzik egiazkoenak giza-bio-
tzari esaten dautsozuzanean, zure oldozkun sako-
nenak, sentikorrenak, beteenak aldatzen dautsozu-
zanean, ez zareala ulertua iruditu lei.

Bearbada zure berbak egatuko dabe nun kokatu
ez dakiela; bearbada, igaroko dira barne-burru-
kaen itsasoan lorratzik idegi barik.

Zure sentipen sakonenak adierazo barik gelditu
diralako arrokerian ez jausi, gero.

Ez egizuz gorde euren usaiñagaz zure bizitza ai-
zeztatzeko edo inoiz bere izango ez dana opatute-
ko. Gogoan eukizu, norbaitek bere bizitza jasotze-
ko bear dauzan itzak izan leitekezala orreik. Ori
dala-ta, bere bideari jarraitu ezin ba'dautsozu be,
esan egizuz leunkiro, itxaroten dautsoen lurrean
jausi daitekezala uste dozunean.

Ondoan, ez zaitez saiatu izki orrein norabide

atzemangaitza aurkitzen, ezta azaroko lorea urretxindorren janaria ala gosetien ogia izango ete diran jakiten bere.

Guzti ori, bada, zertarako jakin gura dozu?

XXI

Nietzsche'k esana da: «Izan zaiteze gogorak, anaiak!». Zeuk, oster, ez egiozu ain aolku illunari jarraitu. Besteen ta zure kalterako izango litzake.

Aitzitik, mundu guztiak zuri kalte egin arren, naiz ta bizitza zure aurka biurtu ta indarrak laga, gizonak saldu ta maitasunak aztutzen zaituan arren, txar-oldozkunak eta gorroto-deabrukumeok ezkutatzen diran zure biotz-artzuloa ez idegi.

Obe izango dozu on egitea. Orretara, ezer kostatzen ez dan ta bere jaubeai garaitu-ezifiezko atsegintasuna damotsen jaurerri baten agintea izango dozu.

Zure aurka biurtzen dan mundu baten emaitz oparora ta biotz gogorrai buruz zorioneko irriparre ta lora zabaldua zaitezke.

Gogaldu egizu Jaungoikoa olan izan dala zurekin emonkor. Zeuk bere beste orrenbeste egin dagizun ta zure biotza Jaungoikoaren biotzaren taupada bat izan dadin munduan.

Ez egiozu eskatu giza-maitasunari emon ezin dagiketsunik.

Gizonakandik ez daukena itxaroten ba'dozu, zorionik bage biziko zara iruzurraren beltzurian.

Aitzitik, gizaki guztien aldaketak ulertu ta euren auskortasun ta mugakaz bat egiten ba'zara, errukitsu ta biotz-bera izango zara.

Betetasuna Jaungoikoagan baiño ez dala bizi ta adizkidetasunari bere txirotasunak emon ezin dagikena eskatzea arrazoigabekeria dala ulertuko dozu.

Ordu orreatatik ez zara etzango zure ezerezean ezta besteenenean ere; aldiz, zure ta besteekiko goxo izango zara.

Eziñezko ukarrak ez dozuz eskatuko; aitzitik, pozik egongo zara zuk baiño gitxiago dabenai daukozun gitxitik emonaz.

Jaungoikoarekiko gauza asko jakin gurako zeunkez, ikasi ebenak eta izan diran jakintsuak legez. Antziñako idaztietan ta irakasleen esanetan jakintza billatzen alegintzen zara.

Gogo-txirotasuna ta biotz-garbitasuna jakiten baiño ezin saiatu neinteke. Naiko dodaz bizitza bakuna ta begirakune gardena nire Jauna ikusteko.

Orretxegaz naikotu ta besterik bekaizten ez dodanean, orduantxe dator Bera ta bere adizkidetasuna agintzen daust. Orduantxe urreratzen yat bere ezkutukia niri esateko.

XXIV

Neguko goiz gogor bat zan. Atarira urten nebanean, burua ñontzez estalduta urreratzen ikusi neban.

Esan eustan: —Urrundik nator. Ez dakit noiz elduko nazan errira.

Ogi bigun bat atara ta emon neutson.

Bere begi argiak begiratu eusten ta izaki ezbaridin bat iruditu yatan, Errege bateri ogia emon neutsola iruditu yatan.

Esan eustan: —Ez dot aztuko zure izena.

Ta bere bideari jarraitu eutson.

Egun aretatik bizitza lotuta geratu yatan. Eguzkia agertzean, nire atea zabaldu ta Bidazti Arek nire ogia artu ebalá gomutatzean, zugatz-tantaien aize bezelakoa sartzen yat biotzean.

Ta susmozko poz batek betetzen nau.

BETETASUNA

I

Irailleko illargipean orbelak egazka dabiltzanean, billoisik geratzen doazan astigarren adarretara begira amets egiten dozu.

Alan be, aldapan gora zoazala, ibillitako bideari begiratzeko biurtzen ba'zara, izandako ta galdutakoagaitik miña sentiduko dozu, nunbait.

Bidean itxi zenduan guztiak ziztatuko zaitu, ta galdutako ona alperrik ondatutako ondasuna irudituko yatzu.

Baiña, igarotako bizialdiari maitasunez begiratzten ba'dautsozu, zure bizitza ez dala ortu legorra izan ta zure esparruan igali gozoak eldu dirala ikusiko dozu.

Galdu ta lortutako, izan ta izanbako, il zan ta gaur jaioten danaren bidez, Jaungoikoa errukitsua ta aitatiarra izan dala ikusiko dozu. Udazkeneko eguzkipean zure mastia onetsi dau ta bizitzako to-larean bakearen ardao gozoa itxi dautsu.

II

Urretxindorra zoriontsua zan arboladi oparotsuan arik eta arratsalde baten zisne bat aintziran ikusi eban artean. Orduan uren leiar-gaiñean agintzearen zoriona irrikatu eban ta armiñozko gorputzaren edertasuna bekaiztu eban.

Zisnea bere zoriontsua zan bere erreka orlegian arik eta urretxindorra egaka ikusi ta bere abestiarren txorrotxioak entzun ebazan artean. Orduan basoan egan ibiltzearen zoriona ta txiruli ederren txirula bekaiztu ebazan.

Bakoitzak bere izpea esan eustanean, neukana-
ren gozatze baketsuan bakarrik zoriontsu izango
nintzakela ikasi neban.

III

Udazkeneko larrosen antzeko lora beranduko-
rren txorta bat daukat besoetan.

Nik opatu arren, nire lorontziak ez ziran loratu
euren garaian. Garai aretan nik ez niarduan bara-
tza zaintzen ta muskillak ez ziran zabaldu.

Orain, sasoi igarota, nire lora-saillak loretuta
dakusdaz eta lili-buruak ler egiten dabe.

Maiteminez begiratu oi dodaz beste aldi bateko
larrosa orreik, gaur nire bizitzan usaintsu zabaldu
diranok.

IV

Batzutan Jaungoikoa aurkitzen ez dozula-ta, zure espa entzuten dot. Neuk, baiña, ondo dakit zuz gaz dagoala.

Zelan diñozu ez dozula aurkitzen, billatzen ba' dozu? Ala maite dogulako ez al dogu Jaungoikoa billatzen? Maite ba'dogu, ba-daukagu.

Zure biotzean eroango ba'zendu, urrun dagoala usteak ez leuskizu mifnik emongo.

Alperrikoa da zure espa. Jaungoikoa maite ba' dozu, ba-daukazu.

V

Igitariak itxiten ebezan galburu banakak biltzeko gure gorputza makurtuten genduan. Olan, garagarrillako eguzki kiskalgarria jaustean, gure jardunaren makurtu bearrez garria austen yakun. Galburuak, banan-banan, nire besoak betetzen joiazan ta ezpal gorri-zuria osotzen eben.

Arrats-apalean, burdiak aurretik joiazan, urrezko uztaz gaiñezka, baserriko mandioak betetzeko.

Jaungoikoa gu galburu biltzailleokin joateko atzeratuko bai'litzan iruditu yatan.

VI

Nire inguruan guztia illun dagoanean, orduan-
txe agertzen da Bera.

Bide guztiak sarratuta dagozanean, Bera aurrera-
tzen da, bere eskuan giltza daroala.

Nire ta ludiko indarrak ezerez diranean, alguztia
eskuazprietan dizdizka agertzen ikusten dot.

Nire bizitzako loreak zimel dagozanean, atzera
etorten da Bera, goizean, bere otzara bete larrosa
mardulakaz.

VII

Nire adimena itzartu zanetik Zugana laister egin
dot, Igarobide orrengana!

Egun batzutan bildurrez, beste batzutan zure
aurkitzearen bestekaldean egoteko itxaropenaz.

Batzutan zalantza ta beste batzutan guraria na-
baitu dot biotzean zugaz oldoztutean.

Egun baten, barriz, Jakintzak ikertu ninduan ta
zure ikustaldiari buruzko argitasuna emon eustan.

Arrezkero zure etorrera nare itxaroten dot, irrits
eta iradu bage.

Ba-dakit orduan maitaleak bere kezka itxi ta,
goiz argitsuan, bere Jaunaren laztan pozgarria ar-
tzen urtengo dauana.

VIII

Uspel orreik mundikakoak dituzun itauntzen ba'dautzut, ez zeunke jakingo azalduten.

Bizia igaro-ala zauri batzuk artu zenduzan. Nork egin eutsuzan ez zarala gogoratzen, nik uste.

Odola iñotsi eutsen ta luzaroan zabalik egon ziran, zure aragian lo-erazle legez.

Gero sarratu ziran. Jaungoikoak sarratu ebazan.

Gaur ezaugarri orreik gelditzen dira. Zure bizitzaren arratsalde baketsuan loretuta ikusten dodazala irudi.

Zer diran edo zer adierazoten daben gogoratu ezin dozun arren.

IX

Batzutan pentsatu dot ia zergaitik lurralde guztietan gizonak Andra Mariari lorak eroaten dautsoezan.

Bearbada, Liliburua jaio zan adarra izanik, liliburu guztiak berari eskeintzea dagokio.

Baita ere dagokio munduko baratzetako usaiñak Berari darion atsona, loreetan, aizeztatzen joatea.

Ta ezbairik bage, Graziaz beteari ludiko era askotako eskerrak, lora eginik, eskeintzea dagokiolako.

X

Ez egizu ito kanpoko zaratagaz zure ixiltasunaren izkera. Ikasi egizu zure bakartadeari entzuten ta beragaz bakean egoten. Zure bizitza zure gogoaren abesti ixil sakonagaz batera ba'doa, jakintsua izango zara.

Billatu egizu bizitzako aterpea, Jaungoikoagazko zure bakartade atsedentsuan. Bestera eginda, ez zaitetz lagunabarreko otsandian babestu, ixillaren abots naretik iges egiteko, berau baita bizitza ta betetasuna.

Gizostean zareana galtzen dozu.

Zure ixillaren abesti bigunean zure burua ta Jaungoikoa birraurkitzen dozuz.

XI

Nire akats bakoitza deuseztu ta, olan, guztiak atarata gero, nire burua garbi ta Jaungoikoa maitatzeko duin ikusteko asmoa neban.

Alan be, ezetariko zorrik bage aurkitzeko leiatzea azkenbako arazoa zala ta nire bizitza ezifinezko alegin baten aituko litzakela oartu nintzan, maitasunera eldu orduko.

Eguzkiak niri argi egitea ondo gatxa izango zala ulertu neban, orretarako lenengo zeruko izar guztiak bata bestearen ondoan amatau bear ba'nebazan.

Izarren ortzean jazoten dana arimako zeruan gertatu-erazotea errezago dala ulertu neban. Eguzkia ez da agertzen izarrak amatauten diralako; eguzkia agertzean, aldiz, eurak gozokiro itzaltzen dira.

XII

Batzutan pozaz, beste batzutan oiñazeaz baliatuaz nire biotzeko barne-bizitza lantzen dau Berak.

Berak iratzartuten dau nire bizitza ordu itunen beltzorean edo goralpen alaiaren aztutzean lotan dagoanean.

Berak emoten daust eskua ibaia igarotzeko uaitza ni baino indartsuago danean.

Udabarrian eguzkiak zelaia berotzen dauanean, Berak sendotzen dau nire borondatea be.

Nire baratzean lorak ernetzean, Berak jaio-arazoten dauz nire gogoan munduaren ta gauza guztien gainetik dagozan bere gurariak.

Nigan bizi da-ta, Berak zabaltzen dau bere bizitzaren ur-jauzia nire araneko sakonean.

XIII

Ba-dagoz batzuk gauza guztien zergaitia jakin gura dabenak.

Jaungoikoaren ezkutukietan sartu nai dabe, munduko gertaeraen ta gizonen zergaitia Berari eskatzeko.

Aizeak itsasontziak alkar-jotzera zergaitik bultzatzen dauzan beti argi egotea nai dabe.

Zuri naikoa yatzu Jaungoikoaren ezkutukiak gurgarriak dirala jakitea ta beti be maitasun ta itxaropenezko arrazoia dan zergaiti bat Beragan ezkutauta dagoala.

XIV

Izadiaren ta bizitzaren ezkutukiak billatzen dauzan jakintza bat ba-dago. Baiña zuretzat opa dodan Jakintza ez da olakoa.

Zure gogoa mundu onen erdian azke ta beragandik lokabe jasoten danean, arrokeria gura izan barik, Jaungoiko-maitasunaren esan-eziñezko erakarpena beragan sentitzen dauanean, orduan Jakintzaren izpi bat jasoten dau.

Kurutzeaganako maitasuna zure arimara eltzen danean, arengan zure on ta indarra ikusten dozuzanean, opatutako bere laguntasunean pozik bizi zareanean, Jakintzak ikertu zaitualako ezaugarria da.

Jaungoiko-maitasunaren ta gizonen gaizkakundearen naiak zure bizitza gartu ta zure biotza erretzen dauanean, Jakintzaren izpi bat zuganaino eldu dalako agergerria da.

Asarre guztitik urrun, zure biotzak errukiz eta biozperatasunez maitatu ta on-gaiztoen gaiñetik go-

zotasuna ixurtzen dauanean, Jakintzak laguntzen dautsu.

Zure biotzak, bere garbai ta ondikoaren sakonean, Jaungoiko-errukiagan uste ona dauanean; Jaunaren errukiaz babestuta nasai aurkitu ta beragan lazotzen zareanean, orduan Jakintzak argituta zoaz.

Otoi ixillaren poza nabaitu ta Jaungoikoa maitatu ta Beraganako itxaropenaz betetzeko bazterreko bakartadea billatzen dozunean, ziur-ziur egon, Jakintza zugaz dago.

Munduko bideetan zear zoazanean, betiko aberriko adierazo eziñezko argiaren billa begiak jasotzen dozuzanean; argi ta maitasun arenganako miña ta irrika nabaitzen dozuzanean, orduantxe Jaungoiko-Jakintza zure biotzean kokatu da.

Berari buruz idatzita dago: «Gaztetatik maite izan ta billatu neban, emaztetzat artu ta bere edertasunaren maitale billakatu nintzan.»

XV

Ludia goizero argitara itzartzea, Jaungoikoak zuretzat gertau dauan ustegabeko bat irudi bear yatzu.

Arratsaldero, eguzkiaren ostentzea ta itzalaren etortzea, mundua bere ezkutukira itzuliko bai'lizan izango dira.

Ta argiak eta ezkutukiak munduaren ta bizitzaren bilbea eratzen dabela ikusiko dozu.

Zure baratzeko udabarrian gogoan euki egizu maiatzeko lora orreik egun batekoak dirala, mundua jira-biraka ibilliko dala ta urmaela izoztuta barrero be ikusiko dozula.

Neguko egun edurtsuetan ez aztu lora goiztarrak urrean dagozala.

Olan, zure burua ta Jaungoikoa gauza guztien jarraipenean egindako batasunean aurkitzen ikusiko dozu.

XVI

Eguna asten danetik nire ate-ondoan jezarrita nago. Eguzkiak zelan igoten dauan ikusi dot, bere gingan dakust eta jadanik mendiari mun egiteraiño jatsiten ta itsasoan murgiltzeraiño begiratzen dautsot.

Ori gora-bera ba-dakit itxaroten nagoan mandataria etorriko dana, ta guztiz urrundik gura dodan bakea ekarriko daustana.

Esango daust: —Zure maitasuna zain daukazu.

XVII

Oldoztu ta erabagi egiten zenduan, zure asmoen bidetik sartu eitezen berba egiten zeuntsen.

Olan ez egiela oartzean atsekabetu oi zifian ta etorriko ziran gatzak ta zure uzien okertzea zenbatzen zenduzan.

Ezbai barik, zuk erabagitakoa edo euren borondateak agindutakoa egingo litzake.

Aldiaren gorua ariltzean, mendixka barri bat ikustatzen zenduala iruditu yatzun ta bidetxigorra ez zala zabaldu zuk gura zenduanetik, ezta besteak gura ebenetik ere, ulertu zenduan.

Berari entzun zeuntson esaten: —Antzerkiaren ariak nire eskuetan daukadaz. Oker dagoz panpiñak gura daben lekutik doazala ustean. Euren oldozkunak ez, nireak agintzen dabe.

XVIII

Urrezkoa izan arren, ez egizu edur-txoria kaiola baten itxi. Ez egizu lotu eriotzaren ituntasunagaz, Jaungoikoak basoaren pozgarri ta apaingarri egin eban-da.

Itxi egizu txoria azke oianean, bere eresiak munduaren atsegingarri ta bere margoak zelai orlegiaren apaingarri izan daitezcan.

Ez egizuz larrosak txortetan lotu zikiriozko lokarriekin. Zabartzen ba'zara, larrosak itun jausiko dira, ta lakioak eskuan geldituko zara.

Itxi egizuz lora ederrak euren landaran, erleak euron kukuluetan miztatu dagien; aizea usaintsu ta baratza atsegingarri izan dadin.

Erregearen igarotzea usain gozodun izan dadin ta ludiak Jaungoikoaren anditasunaz gainez egin dagian.

XIX

Zure gaioko ugaitzak pirritatzeari ta zure lurrak bear dauan ura atarateari itxi ez dagioen arduraz ibilli.

Eguzkia ostentzean zure urmaela ur gardenaz beterik egon daiten arduratu zaitez, bertan mordo be-teak daitezcan.

Kontuz ibilli, zure eguneko orduak amaitutakoan zure ortua garastaturik egon daiten ta igaliak elduta ta azukreaz beterik aurkitu daitezcan.

XX

Guza guztiak Zuretzako dira, Jauna, ta guztiak Zugana doaz.

Zelaia apaintzen daben kardantxilloa ta lora ederra zureak dira ta Zugana doaz.

Ibilli dabillen ibaia ta bere olatuak ondartzan negartzen dauzan itsasoa, Zuretzat eta Zugana.

Munduan maitatzen ta nekeetan bizi dan gizona, Jauna, Zuretzat jaio ta Zuretzat ilten da.

Eguna sartalderuntz gelditu barik doan legez, olantxe gure bizia Zugana laisterka doa.

Udazkeneko aize meak, mugagabeko aldiagaz bat egiteraiño egan egiten dauan antzera, gure jogailuaren eresintasuna Zuganaño egazka doa.

Ta nire abestiak gogo bakoitzari berak billatzen dauan sentipena ba'damotso be, bere egiazko esanaia Zugana doa, ene Jaungoiko orrengana.

XXI

Ba-dirudi gaba ifioiz bere ez dala sarratuten. Geditasun minduriaz gautzen doan illuntze bat da.

Eguzkia edo izarrak ikusi ta egun edo gaba izan zedin gura neban.

Baiña nire guraria burubakoa zan. Arratsaldea jausten dan moduan, zure bizitza bere zikirioa eiotzen joango da.

Orretara argi etengarri batek zure bideko pausuak argituko dauz.

Jaungoikoaren eskuak, illuntze geldi baten antzera, zure betetasuna landuko dau.

XXII

Zergaitik negar egiten dozu joandako urteakaitik? Itxi egizuz eta ez egizuz erabildu zure idaztiko andeatutako orriak.

Zabaldu egizuz begi argiak, umetan legez, eta begiratu egiozu goizalde dizditsuari zure geriza-ondo loretsuaren gainean.

Begiratu egiezu etorriko diran egun ederrai eurretan bizi izan ta maite dagizun.

Jagi zaitetz; orain asten zara gura zenduana izaten. Begiratu egiozu Jaungoikoak zuretzat egin dauan bide barriari. Zeiñen ederra ta diztikorra dan!

Joanak joan. Gaurko au dozu gaztaro bikaiña.

XXIII

Itz dagigun, bidazti lagun orrek, gaztaroko egun areitzaz.

Begiztatu dagiguzan goizaldeko urte areik, bidaztiak mendixkatik masti orlegiak legez. Entzun dagiguzan oiartzun areik, atzera etorri diran txorien abestia, leio zabalduetik, entzuten dauanaren antzera.

Bizitzak gomutapenaren antz gozoa artzea atsegingarri yat. Ori gorabera, gaztaro oparotsuaren oroipenak ez daust atsekabe egiten arratsaldeko bizitza. Gaur biotza umotasuna lortu ta narotasunez, erruki ta gozotasunez bizi da.

Goiz oparotsuan ez genkian bidearen taupada sakona entzuten. Arratsaldean bizitzari mats-mor-do gorrizurien mama gozoa dario.

Gaur ezagutzen dauz odolak bere ikusieziñezko bideak eta biotzak bizitzaren edestia.

Ordu onetan, udazken naroaren atsegintasunean, maitasun ta oiñazearen taupadak ludiaren igiera biak dirala jakin dozu. Ta baita Jaungoikoagana daroen betiko bide biak dirala be.

XXIV

Zugan, Jauna, aldakorra ta jakin-gatxa dana jadedetsigarri egiten da. Zugan urrutikora eltzen da. Munduagaz batera zatoz eta Ludi guztia eltzen da Zu eldukeran.

Ikusten zaituanak guztia dazagu. Sentitzen zaituanari ez yako ezer peituten guztia sentitzeko.

Usain ta margo guztiak Zugan bat egiten dira. Ots eta poz guztiak Zugan sinfoni bat eratzen dabe.

Aurkitzen zaituanak, azkenik, idekoaren mugabako munduan bakarra daurki.

XXV

Ez zagizala mindu arrats-berako eguzkiaren izpiak urloaren gainean jausten dirala ikusteak.

Bearbada, orain zure biotzeko soñua bere ereskidetasunean ederragoa izango da.

Orain Maitasuna bere zalantzatik ustekundearen betetasunera deitua izango da.

Bizitzea ez da izango zuretzat dana jausten itxiten dozun laisterketa bat, lei ta zorabiobako gozatzte garbiaren narotasuna baiño.

Orain zure ametsak mamiturik dakutsuz ta zure baratzeko larrosak beti barri agertuko dira.

Orain lazokeriaren bakea loretzen da ta Jaungoikoak kiskaltzen ez dauan alaitasunaz argituko dau zure biotza.

Kristo gure adizkideak olan dagiala zugaz, ene anai bidazti orregaz.

Beragan batuta gelditzen gara.

Agur!

BILLABIDEA

ATARIA	orrialdea	5
ARRENA:		
I. Berak eragindako eresia		11
II. Urre-zidarrezko goizean		12
III. Zure berba egiteko modua		13
IV. Jaungoikoa ain urrun dago		14
V. Ba-dantzut zure intziria		15
VI. Ni ume nintzala		16
VII. Bidaztiak esan eban		17
VIII. Zure bizitzaren joan-etorrietan		18
IX. Eleiza bakartian zu ta biok belauniko		19
X. Otoitz-aldian Jaungoikoagana urreratzen zarenean		20
XI. Berak ez eustan ezer esaten		21
XII. Berak, eskuak batuta, onelan otoitz egian		22
XIII. Jauna, nai dodana Zuri eskatzeko difnostazu		23
XIV. Jaungoikoaren almena gauza txikietan		24
XV. Bera ezagutzeko gogo bizia daukat		25
XVI. Ez dakizula gogoia alperrik ixuri		26
XVII. Ainitz gauza eskatu neutsuzan, Jauna		27
XVIII. Narrazka zaroazan zurrunbillo-erdian		28
XIX. Ene Jaungoiko, Zuk nigan ipinten dozuna		29
XX. Ez dakit, Jauna, zelan izan daiteken		30

XXI. Zure maitezko damuak	31
XXII. Ikusi-eziñezkoan datza zure indarra	32
XXIII. Zuganako bide-billaketan asi nintzan	33
XXIV. Nire guraria bete dagizun	34
XXV. Zure gogaien sinfoni ezkutuzkoa	35

MAITASUNA:

I. Maite zaituenak lotu nai zaitue	39
II. Dan-dana atonduta neukan	40
III. Ni kanpoan nengoala etorri ziñan	41
IV. Ustegabeko lekuan zintzotasuna aurkituko dozu	42
V. Egia da, batzutan, ez nazala joan zure deira	43
VI. Igaro bear eban bide-ertzean Aren zain nengoan	44
VII. Zure udabarri goiztarra joan orduko	45
VIII. Maite izaten ikasi ez daben gizonak ba-dagoz	46
IX. Bidekatu nintzan egun baten aurkitu neban	47
X. Beragandik aldendu zintzazanean	48
XI. Jaungoikoaren billa asi nintzan	49
XII. Ikasi egizu ederrena maitasun-gezna bat dala	50
XIII. Apaindu zaitez, Bera etorteko dago-ta	51
XIV. Jaungoikoak ezin onartu leike,	52
XV. Oldozketan nengoan zelan dabilzan ara ta ona nire gurariak	53
XVI. Nire ate-aurretik igaro ta deitzen ba'dozu	54
XVII. Maitasun ezezagunagana irrika bat nabaitzen dozu	55
XVIII. Maitasun andi batek ixiotuta euki biotza	56
XIX. Zer gerta ere, Jaungoikoagaz baturikegon bear dozu	58
XX. Egund aretan, ene Jauna	59
XXI. Urrunduzanean, zaputz lotu zan	60
XXII. Urrezko goiz aretan	61
XXIII. Ez nagizu, anaia, ainbeste zerakaz estutu	62
XXIV. Egund asko dira atera urtetan ez dozula	63
XXV. Langilleak nagusiaren etxetik alde egin ebe-nean	65

VI.	Beatz-puntetan nenbillan bere aurrean	102
VII.	Jaungoiko-ardurapenak dana zuzentzen dau ...	103
VIII.	Jaungoikoak ezin ditu	104
IX.	Zera diñostazu, zure ametsak desegin dirala	105
X.	Olakoaren ta alakoaren bildur naz	106
XI.	Bere naigabearentzat urtepiderik ez egoala ...	107
XII.	Ba-dakit batzuk betiko oliñazeaz	108
XIII.	Ez baijan zagozan uneak ba-dagoz	109
XIV.	Zure borondateak aurrera joan bear dauala ...	110
XV.	Atzera begiratzen dozunean	111
XVI.	Ekin da ekin nire anai txikiari esaten	112
XVII.	Zure siñismenak irabazi ninduan	113
XVIII.	Aunaturik eldu ziñan zure ibillaldiaren azke- nera	114
XIX.	Itxaron apur baten	115
XX.	Arratsalde aretan artzaintxoia	116
XXI.	Zure gogai bakartian	118
XXII.	Arriitsu bat bestearen gainean ipiñiten	119
XXIII.	Ez siñistu bein be zure bizitzaren ondamen- dian	120
XXIV.	Zoriontsuagoa izango zintzakez	121
XXV.	Odei-ertzaren antzekoa da zoriona	122

GARAIPENA:

I.	Ez dozu ikusten zelan jatsiten dan zerutik edu- rra	125
II.	Gertatzen dana gertatzen dala	126
III.	Naiz ta izugarria izan, jauzi bat egin gura zeunke	127
IV.	Ez dakit zer daben gizon batzuen itzak	128
V.	Ez egizu zure egada eratzki	129
VI.	Aberats eta oparotsuak uste nebazan emai- tzak	130
VII.	Onezkero orrialde asko bete dozuz	131
VIII.	Larrosadiko ur-jauzia lakoxea izan zaitez ...	132
IX.	Gogoaren azkatasuna edatsua da	133
X.	Ez itxi iratxoai zure etxean sartzen	135

SAMIÑA:

I.	Ez uste, gero	69
II.	Arratsalde orretan, baratzean	70
III.	Aren beartzen zara	71
IV.	Zugaz pentsetan	72
V.	Artega nengoan	73
VI.	Zoritxarrak zure anaiaren biotza ikutu dauala	74
VII.	Atxillotua igartzen joian espetxean	75
VIII.	Bearbada, urrutiko ezagutugabeko bideetan ...	76
IX.	Ez uste, arren, Jaungoikoa urrun ta gogor da- nik	77
X.	Ez zaitez itundu bizitzako jokuetan	78
XI.	Gizonaren berbarena baiño indar andiagorik ez da munduan	79
XII.	Berak itxaron-erazoten dautsula diñozu	80
XIII.	Ikusten dozunez ulertu eziña zara zuretzat ...	81
XIV.	Ba-dakit ordu batzutan legea gogorra	82
XV.	Izarrak itzali arren ez kezkatu	83
XVI.	Bere anditasun esan-eziñekoagaz oldoztuten nengoala	84
XVII.	Egizu egunean zure eguneango lana	85
XVIII.	Ez da ardurarik, Jauna	86
XIX.	Maite dozunagandik	87
XX.	Praillea bere espetxetik urten	88
XXI.	Bizitzak maite doguna itxiteko	89
XXII.	Maite egizuz gizonak miñetan dagozalako ...	90
XXIII.	Mugaitzetan, ezbai barik, esan uste onezko berba bat	91
XXIV.	Zure neke-ondapenak erein	93
XXV.	Eskeintza-altarera eldukeran	94

USTE ONA:

I.	Zure buruaz aztu	97
II.	Balio andiko jakintza bat dago	98
III.	Aingeruzko daukadanagaitik	99
IV.	Joan ziñaneko gaba illuna zan	100
V.	Maitatua dala dakianak	101

XI. Zoriona da gizonaren elburua	136
XII. Lilluraz betetzen zaituan bidetxigor bat	137
XIII. Ez zagizala izutu bizitzaren burrukak	138
XIV. Ba-dakit ezkutuki bat daukozuna	139
XV. Errekaren uretatik edan bear ez ba'dozu	140
XVI. Bidea betiko galdua zala uste zenduan	141
XVII. Ez aztu egunak lurra lantzeko emon yatzuzala	142
XVIII. Noiz ausartuko zara, zure ontzian	143
XIX. Griñaz erre ta lipar baten amatauten dan mai- tasuna	144
XX. Gura ez dozun gaitza egiten dozu	145
XXI. Dana txarra izango ete?	146
XXII. Ba-dakit artegasuna somatzen dozuna	147
XXIII. Zure oiñak ez daitezala sareztu	149
XXIV. Berari agindu zeutson maitasunean	151

EMAITZA:

I. Ez ibilli orren arin	155
II. Dagizun onaren alde	156
III. Urak liñu zurizko zapia eroan eutsun	157
IV. Goizean goizik mats-biltzaillekin	158
V. Sarritan zure poza ain da bakuna	159
VI. Bizitzak zure galpen edo eriotzaren gainean	160
VII. Ez eglzu jakin gura	161
VIII. Nigan sentitzen dodanean	162
IX. Munduari guztia emon zeutson	163
X. Iñoiz bere ez egizu nekea zure eskuz ezarri	164
XI. Ez zaitetz arritu giza-maitasunaren eragabeke- riaz	166
XII. Bearbada besteak ezagutzen ez daben kezka bat	167
XIII. Ez zaitetz geratu oldozkun itunak ausnartzen	168
XIV. Kuskutan dagoan lorak bere usain ta zoriona	169
XV. Ez izan bein be iroirik	170
XVI. Daukozuna emon	171
XVII. Ekatzak bere asarre bizia erausten dauanean	172
XVIII. Ez zaitetz nekatu gozotasuna ereiten	173

XIX. Jaungoikoak eskeintzen dautsun edertasuna	174
XX. Esateko daukazuzan itzik egiazkoenak	175
XXI. Nietzsche'k esana da:	177
XXII. Ez egiozu eskatu giza-maitasunari	178
XXIII. Jaungoikoarekiko gauza asko jakin gurako zeunkez	179
XXIV. Neguko goiz gogor bat zan	180

BETETASUNA:

I. Irailleko illargipean orbelak dabiltzanean	183
II. Urretxindorra zorionsua zan	184
III. Udazkeneko larrosen antzeko	185
IV. Batzutan Jaungoikoa aurkitzen ez dozula-ta ...	186
V. Igitariak itxiten ebezan galburu banakak	187
VI. Nire inguruan guztia illun dagoanean	188
VII Nire adimena itzartu zanetik	189
VIII. Uspel orreik nundikakoak dituzun	190
IX. Batzutan pentsatu dot	191
X. Ez egizu ito kanpoko zaratagaz zure ixiltasu- naren izketa	192
XI. Nire akats bakoitza deuseztu	193
XII. Batzutan pozaz, beste batzutan oiñazeaz balia- tuaz	194
XIII. Ba-dagoz batzuk	195
XIV. Izadiaren ta bizitzaren ezkutukiak	196
XV. Ludia goizero argitara itzartzea	198
XVI. Eguna asten danetik	199
XVII. Oldoztu ta erabagi egiten zenduan	200
XXVIII. Urrezkoa izan arren	201
XIX. Zure gaioko ugaitzak	202
XX. Gauza guztiak Zuretzako dira	203
XXI. Ba-dirudi gaba iñoiz bere ez dala sarratuten	204
XXII. Zergaitik negar egiten dozu	205
XXIII. Itz dagigun, bidazti lagun orrek	206
XXIV. Zugan, Jauna, aldakorra ta jakin-gatxa	207
XXV. Ez zagizala mindu arrats-berako eguzkiaren izpiak	209

AGERTUTAKO IDAZTIAK

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar-Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji-Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea